

**Herririk Herri** |4|  
Aldatzekua jauregiko egokitze  
lanak amaitu dituzte Elorrión

**Ekonomia** |10|  
lurretako Institutuak Barruetabeña  
Anbotoko presidentea saritu du



**Berbaz** |9|  
Jabi Arbeo: "Edukiez gain, irakasleok  
afektibitatea ere transmititzen dugu"

## A8ko bidesariak merketu egingo dituztela azaldu du Aldundiak

- > EAJ, PSE, PP eta EAren arteko akordioak bidesaria kalkulatzeko modua aldatu duela dio Aldundiak
- > Itziar Garamendi foru diputatuak bidesarietan "aldaketak eta murrizketak" iragarri ditu

03

## Marianne Vosek irabazi du Birako lehenengo etapa

**KIROLA** • Netherland Bloiet taldeko munduko txapeldunak irabazi zuen atzo Emakumeen Birako estreinako etapa. Sprintean bera izan zen txirrindularirik indartsuena. Gaur Lekeition hasi eta amaituko da Birako bigarren etapa. Bihar Elorriotik Elgetarako kronoigoeran lehiatuko dira. Azkenik, domekan, Urduñarako ibilbide gogorak ipiniko du bakoitza bere tokian.

23



Uda  
2010



Juanra de la Cruz

**Kurutzesantu museoa atzo arratsaldean inauguratu zuten**

**Durango** • Hainbat udal arduradun eta herritar bildu ziren atzo Kurutzesantu museoren inaugurazioan. Ekitaldian 'Kurutziagako Gurutzearen ikonografia' liburua aurkeztu zuen Jesus Mari González de Zárate EHuko Arte katedradunak. Kurutzea eta eraikineko gainerako guneak asteburuetan ikusgai izango dira

2

### • Durango

Haitiri laguntzeko Munduko Arrozak jaialdia

2

### • Otxandio

Iheskide eta Gose taldeak Mekoletako jaietan

6

### • Berriz

Errumaniar kultura ezagutaraziko dute kultur arteko topaketetan

7

### • Izurtza

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak

7



**BOART**

Sukaldeak  
Bainugelak  
Horma-armairuak



Tel. / Faxe: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

# HERRIRIK HERRI >

**DURANGO**

## Kurutzesantu museoa atzo inauguratu zuten hainbat ekitaldigaz

Jesus Mari González de Zaratek 'Kurutziagako Gurutzearen ikonografia' liburua aurkeztu zuen

**A**tzo inauguratu zuten Kurutziaga kalean kokatuta dagoen Kurutzesantu Museoa. Barruko espazioan lau eremu tematiko atondu dituzte; nagusia Kurutziagako kurutzeak hartuko du eta bere historia ezagutzeko beharrezko materiala ere eskuragarri ipiniko dute.

**'Kurutziaga Gurutzearen ikonografia' liburua aurkeztu zuen Jesus Mari Gonzálezek**

**Museoak lau eremu tematiko ditu; denetan inportanteena kurutzeari eskainita dago**

Bigarren txoko bat Kurutze Santuaren Kofradiari eskainita dago; hirugarrena museoa kokatuta dagoen ermitaren eta eraikinaren inguruko datu eta materialekin osatu dute; azkenik, laugarren eremuak Durangoko herejeen inguruko ezagutza zabaltzeko aukera ematen du.

Eguen arratsaldean inauguratu zuten ofizialki hainbat ekitaldiren bidez. Jesus Mari González

de Zarate EHuko arte katedradunak *Kurutziagako Gurutzearen ikonografia* liburua aurkeztu zuen. Horrez gainera, Durangon izandako herejeen inguruan gehiago jakiteko aukera eskainiko du Iñaki Bazanek gaur 19:30ean emango duen hitzaldian.

Domekan, Khantoria musika elkarteak XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako erreperitorio barrokoa eskainiko du, 20:30ean, garai haietako instrumentuak eta interpretazio-teknikak erabiliz. Ander Berrojalbiz —biolin barrokoa— Maider López —biola barrokoa— eta Virginia Gonzalok —klabezina— osatutako hirukoteak jardungo du zuzenean.

**Kurutzea protagonista**

Kurutziagako kurutzea da museoak gorde eta zainduko duen piezarik balioetsuena. Horixe izango du bere etxe berri eta definitiboa hemendik aurrera. Barikuetan eta zapatuetan 18:30etik 20:30era bisitatu ahalko da, eta, domeketan

**Barikutik domekara 18:30etik 20:30era bisitatu ahalko da kurutzea**



Udaleko zinegotziak eta hainbat eragile batu ziren inaugurazio ekitaldian. Juanra de La Cruz

12:00etatik 14:00etara. 2008an, ohiko kokalekutik Jesuitak ikastetxearen aurrera aldatu zuten, baldintza klimatikoek aurre egiteko asmoz.

Historian zehar kokaleku bat baino gehiago izan du. Adituen ustez, kurutzea XVI. mendekoa da eta harrezkero ia beti Kurutziaga auzunean egon da. Hala ere, kalean eragindako hainbat aldaketa tarteko, mugitu izan da behin

baino gehiagotan. Esaterako, aldi-aldi batean, horma baten kontra ere egon da.

Gerra Zibilean, Durangoko bombardaketaren ondorioz, fustea hautsi zitaion. Ondorioz, 1938an Bilboko portuan almatzen bat egokitu zuten berau gordetzeko eta elementu artistiko batzuk babes-teko. Horixe izan da kurutzea Durangotik kanpora egon den aldi bakarra. ■ J.D.

**Gerra Zibilean, Durangoko bombardaketaren ondoren, Bilboko portuko almatzen batera eroan zuten**

## Hainbat teoria daude Kurutziagako kurutzearen jatorriaren inguruan

Durangaldeko kurutzerik ezagunena den arren, hainbat datu (jatorria, egilea...) ezezagunak zaizkigu oraindik edo adituek teoria bat baino gehiago proposatu dituzte.

Esaterako, ez dago guztiz argi gurutzea noiz egin zen. Hala ere, ia aditu guztiek XVI. mende hasieran kokatzen dute sorrera data. Egileari buruz izenik ez, baina datu batzuk badakizkigu. Europako iparraldekoa zela uste dute, Herbeheretako behar bada, eta Erdi Aroan komertzialki lotura izan zuen Bizkaia gaz.

Baina, zergatik sortu zuten kurutzea? Honi ere ezin diogu erantzun bakar eta behin betikoa eman. Teorietako batek

**Teoria baten arabera, pekatu batetik askatzeko helburuz sortu zuten**

**Pekatuak esperantzaren eta barkamenaren mezua jasotzen du kurutzeak**

dioenez, norbaitek Durangoko hiribilduan egindako pekatu bat garbitu asmoz sortu zuen kurutzea. Bada sorreraren motiboa arlo juridikozikozalean kokatzen duenik ere; Durangoko Hiribilduaren eta Merindadeen artean ipinizuten, mugarri baten antzera, hiribilduaren mugak noraino ailegatzeko ziren jakinarazteko. Azkenengo teoria batek kurutzea askatzailearen gurtzarako sortu zela proposatzen du; XVI. mendean frantziskotarren ordena zabaltzen zihoan eta Durangon komentu frantziskotar bat zegoen 1439az geroztik.

Motiboa bata edo bestea izan, kurutzean dagoen mezua bat da. Pekatutik, barkamen eta esperantzarako mezua zabaltzen du, fustean hasi —pekatura— eta gurutzaduran —salbazioa— amaitzen delarik. ■ J.D.

## Munduko Arrozak ekimenean bideratuko dute Haitirako batutako dirua

Zubiguneak tailer parte-hartzaileak biharko ekimena baliatuko du dirua bidaltzeko

Azken hileetan Haitiko lurrikaran erasandakoei laguntzeko dirua batzen ibili da Zubiguneak tailer parte-hartzaile hainbat ekin-tzaren bitartez, 'Durangok Haiti gogoan' lelopean. Bihar, Ezkurdi plazan, Munduko Arrozak ekimena egongo denez, egun hori aprobetxatuko dute batutako dirua Haitin proiektu bat garatuko duen elkarte bati emateko.

Bihar beste hainbat ekimen ere egingo dituzte. Eguerdia bitartean umeentzako tailerrak, musika eskolaren kontzertua eta

Dakamarrakia taldearekin kalejira egongo dira. 16:00etan Amaia Zubiria kantuan ariko da eta umeentzako ipuin kontaketa ere izango da.

**Kontzertuak Plateruenean**

Gaur, 21:00etatik aurrera, Haitiri elkartasuna adierazteko jaialdia izango da Plateruenean (5 euro): Ermuko Batu Afro Vasco Folk, Barakaldo Betto Snay, eta, Durangoko, Orfeoia, Gal Sen Warriors Hip-Hop taldea eta Maria Anabao Koro Afrikarra taldeek joko dute. ■ J.D.





# A8 autopistaren bidesarian "aldaketak eta murrizketak"

EAJ, PSE, PP eta EAk akordioa lotu dute Batzar Nagusietan kanon hau kalkulatzeko modua aldatzeko

**B**izkaiko Foru Aldundiak A8 autopistaren bidesarien inguruan hartutako erabakien berri eman zuen atzo Itziar Garamendi Herri Lanetako foru diputatuak. EAJ, PSE, PP eta EAren arteko akordio politikoa adostu dute lege araubidea eta Bizkaiko Errepideen Sektoreko Lurralde Planaren finantzaketa-irizpideak arautuko dituen foru arauaren edukiaren inguruan. "Akordioak dioenez bidesaria kalkulatzeko

Foru Aldunditik. Europar Batasunaren hainbat zuzentzarauk zehazten dituzte irizpide horiek eta hainbat kontzeptu hartzen dituzte kontuan, besteak beste, egindako tartea, azpiegituren kostua, ustiapena, mantentze-lanak... Irizpide horiek ezarrita egungo bidesarrietan "aldaketak eta murrizketak" egingo dituztela adierazi du Itziar Garamendik. Neurri horrek Durangaldeko bidesarian ere eragingo du.

## Aralarren jarrera

Aralarrek Bizkaian bidesarien inguruko akordioa "atzerakoa, insolidarioa, bidegabea eta ez ekologikoa" dela dio. A-8 autopistako eta Super Surreko bidesaria antzekoa izango dela esatean herritarrek "engainatzen" ari direla diote. "A8ari begiratzuz gero kilometroko 0,098 da eta Super Surrentzat 0,2 kilometroko". ■ J.G.

## Bidesaria kalkulatzeko irizpideak foru araubaten bidez finkatuko dira

irizpideak aurrerantzean foru araubaten bidez finkatuko dira eta ez orain arte egiten zen moduan, dekretuz", azaldu dute Bizkaiko



A8a Durangaldeko hainbat herritarrek erabiltzen dute.

## Mas Curvas-ek hirugarren urteurrena ospatuko du

Durangoko Mas Curvas motorzaleen elkarteak hirugarren urteurrena ospatuko du zapatuan. Goizeko 10:30ean izenematea (6 euro) amaitu bezain laster, Arteako Ekomuseora bisita gidatua egingo dute; ondoren, luntxa egongo da.

14:00etan bazkalduko dute (paella eta postrea). Gehienez 200 lagunetara mugatu dute bazkari hori. Ondoren, arratsaldean, 16:00etatik aurrera, ordu biko ibilbidea egingo dute motor gainean.

## Goizean, 10:30ean, Arteako Ekomuseora irteera egingo dute motor elkartekoek

Ibilbidetik bueltan, ospakizunei amaiera emateko jaia antolatuko dute. Kontzertuak egongo dira, eta baita zer jan eta zer edan ere, barbakoa eginda. Bestalde, opariak ere zotz egingo dituzte. ■ J.D.

## DIURRETA

# Arriandin pasabidea egiteko lanen esleipena

Lanak egingo dituen enpresa datorren astean hautatuta, uda ostean ekingo diete lanei

Arriandi auzoan oinezkoendako lurpeko pasabidea egiteko lanetarako aurreikusten du udalak aurtengo inbertsiorik handienetarikoa; 900.000 euro inguruko aurrekontua dute lanok.

Hamaika enpresak aurkeztu dituzte lanok egiteko proposamenak, udal gobernua azaldu duenez. Datorren asteko udalbatzarrean behin behinean esleitzeko asmoa dute udal agintariek.

Auzotarren aspaldiko eskaria izan da Arriandin N-634 errepidearen alde batetik bestera igaro behar duten oinezkoentzako "pasabide seguru" bat egitea. Inaki Totorikaguena alkate jeltzaleak gogora ekarri duenez, bidea gurutzatzeko

zebrabide bat ipintzeko aukera aztertu zuten Bizkaiko Aldundiagaz lehenengo, baina diputazioak aukera hura baztertuta, lurpeko pasabidea finantzatzea pentsatu du udal gobernua konponbide onen moduan.

Datorren astean lanak behin behinean esleitura, Arriandiko pasabidea egiteko lanei uda ostean (seguruena irailan) ekitea aurreikusten du udalak. ■ I.E.

## Udalak aurtengo aurreikusitako inbertsiorik handienetarikoa da Arriandiko pasabidearena

ren adibide diren lanak egon dira kultur etxean ikusgai.

Bestalde, Olaburu frontoian atzo egin zuten kultur tailerren ikasturte amaiera ospatzeko jaialdia. Euskal dantzak, aretoko dantzak, Karibeko dantzak, eta sabel dantza emanaldiak, eta gimnasia eta yoga egiten duten herritarren erakustaldia ere egon ziren besteak beste, atzoko antolatuta.

Ekitaldion helburua izan da, tailerrotan egiteko aukeran dagoe-na gainontzeko herritarrei erakusteaz batera, herritar gehiago erakartzea tailerrotara. ■ I.E.

## Kultur tailerretan osatutako lanen erakusketa egin dute asteen

Ibarretxe kultur etxean, ekainaren 9tik 11rabitarte, ikusgai egon dira ikasturte honetan udalaren kultur tailerretan parte hartutako egindako hainbat lan. Besteak beste, marrazketa eta pintura, joskintza, egur lanketa eta argazkigintza tailerretan ikasturtean ikasitakoak





ELORRIO

## Errekazabaleta bidearen tarte bat zolatzea onartu dute

Pulla esaten zaion aldean dago Errekazabaleta bidea eta Niko Moreno alkatearen esanetan "oso egoera kaskarrean" dagoenez, konpondu egingo dute. Baserri batera heltzeko bidea denez gero, baserriko jabeak idatzia erregistrarazi zuen udalean, bidearen egoera txarraz ohartarazteko. Oraintsu bidea aztertzen joan dira udal ordezkariak. Bidea zolatu eta urak batzeko urarkak egingo dituzte. Lanen aurrekontua 21.000 eurokoa da eta hilabeteren barruan amaituta egotea espero dute.

Elorrioko Udalak aspaldiko urteetan daraman politika da hondatuta dauden baserrietarako sarbideak konpontzea. Oraindik Aldapeko bidea konpontzea falta zaie eta hura auzoak ezagutaraziko dituen Naturbideagaz batera konpontzeko asmoa dute. ■ J.D.

**Lanak hilabeteren barruan amaitzea itxaroten dute 21.000 euroko aurrekontuagaz**

## Amaitu dituzte Aldatzekuako egokitze lanak

Gaur udala eta Aldatzekuan dauden bost elkarteak batzartu dira ordutegiak finkatzeko

Lazko urte hasieran hasi ziren Aldatzekua jauregiko lanak eta aste honetan eman die udalak oniritzia han burututako aldaketei. Besteak beste, ate elektronikoa ipini dituzte, giltza berezidunak. Gaur bertan, udaleko ordezkariak Aldatzekua darabil-

**Guztira 275.000 euro erabili dituzte Aldatzekuan hainbat aldaketa egiteko**

ten bost elkarteetako ordezkariak batzartu dira erabilerak eta ordutegiak zehazteko helburuz.

Hauek dira Aldatzekuan dauden bost elkarteak: Berrio-Otxoa eta La Esperanza jubilatuen elkarteak, Alargunen Elkarteak, Elorri-Lore elkarteak eta Berrio-Otxoa Orfeoia.

Lanak hasi zituztenean, jauregia irisgarritasun neurrietara egokitzea zen asmo nagusia, baina azkenean bestelako egokitzapen batzuk ere egin dituzte. Guz-tira 275.000 euro erabili dituzte lanak burutzeko.

Eraikinaren kanpoko aldean igogailua ipini dute eta sarrerirteerak irisgarritasun neurrietara moldatu dituzte. Horrez gainera, kanpoko sarrera bati aldaketak egin dizkiote podologia zerbitzua ezartzeko. Beste lan batzuen artean, gela nagusiko horma bat ere bota egin dute; horrela, espazioa irabazi dute areto horretan. ■ J.D.

**Besteak beste, areto nagusiko horma bat bota dute espazioa irabazteko**



Kanpoko aldetik ipini dute igogailua Aldatzekuan.

ATXONDO



Suteen aurkako neurriak hartzea da helburua.

## Etkez etxe suteen kontrako alarman berri emango diete pertsona nagusiei

Bakarrik bizi diren adineko pertsonak zelako beharriak dauzkaten ere aztertuko dute

Etxean suteentzako alarma dohai-nik jarri ahalko dute Atxondoko adineko hainbat pertsonak. Gazteagoekin bizi ez diren 65 urtetik gorako atxondorrentzako aukera da. Udalak eta *A tiempo* enpresak egindako akordioa dela-eta, uda hasieran pertsona nagusien etxetara alarman inguruko informazioa emateko bisitak egingo dituzte.

Bisita horietan, alarman kontuaz gainera, euren premien inguruko inkesta bat ere bete beharko

dute herriko nagusiek. Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, inkestaren bidez benetako beharriaren azterketa egingura dute, gerorantzean behar horiei erantzuteko.

**Gazteagoek, 30 eurotan**

Alarma doan eskuratzeko bi baldintzak ez dituzten atxondar ugari gerturatu da udalera informazio eske. Etxean alarma jarri gura duenak udalean eskatu eta 30 euro ordainduta lortu dezake. A.U.

GARAI

## 70 lagun batuko dira bihar dantza taldeen arteko bazkarian

Lantziegotik 34 dantzari etorriko dira bihar Garaira, talde biak ezagutu zireneko 25. urteurrena ospatzeko. Goizeko 11:00etan aliletatuko dira, eta egunpasa egingo dute hemengo herritarrekin. Aro ona bada, San Juan ermita inguruan egingo dute hamaiketako; bestela, elkar-tean. Gero Etxeita alboko artea bisitatuko dute.

Poteoagaz jarraituko dute bazkalordura arte. Frontoian 70 lagun batuko dira 15:00ak alde-ra. Sagardo kupelak ere izango ei dira. Ondoren, erromeria izango dute, arratsaldean jai giroari eusteko. ■ M.O.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin ardoak  
**inñaki uribe**

**saltsan**

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan.com

**ALBERDI**  
HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

**Bertako okela**

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1  
Tf: 94 681 76 58  
48200 DURANGO

**ODOLOSTETAN GAILEN - 2009**  
Empleo en la elaboración de Mirellas

**Alberdi Harategia**

**ALBERDI**

**prekozinatuak**

# Zuntza eta Mugikorra, azkenean elkarrekin



## Euskaltelen Pribilegio Plana



Zuntza badaukazu eta Mugikorra kontratatzen baduzu, **hilean 6 €-ko deskontua** izango duzu Zuntzaren fakturan. Betiko.

 zuntzOptikoa

Zatoz Euskaltelen saltokira

6 €-ko deskontua Zuntz Optikoa-aren linearen hileko kuotari (BEZA barmej. Zuntz Optikoa 2 M-ko edo horik gorako Banda Zabuliarekin daukaten bezeroentzat, baldin eta erxeko ondoren ordainuzko mugikorra Unika 15-Tarifarekin edo horik gorako batekin kontratatzen badute. Sustapenak 2010eko irailaren 31 arte balio du.



OTXANDIO



Bertso Baserri Birak seigarren urtea beteko du aurtengo Mekoletako jaietan. Judit Fernandez

## Iheskide eta Gose zuzenean ariko dira Mekoletako jaietan

Umeentzako antzerkia ere egongo da Zurrumurru taldearen eskutik

**M**ekoletako jaiak ospatuko dituzte zapatuan eta domekan. Musika kontzertuek, antzerki saioek eta VI. Bertso Birak osatzen dute, besteak beste, jaietako egitaraua.

Gaur, 13:00etan meza nagusia ospatu dute Arkotxe elkartean. Ondoren, toki berean luntxa egingo dute. Ekimenek arratsaldean jarraituko dute, 17:30ean mus eta briska txapelketak jokatu dituzte-eta Arkotxen.

Jaietako lehenengo eguna musikagaz agurtuko dute. 23:00etatik aurrera Iheskide eta Hardthosethetoo taldeak ibiliko dira zuzenean. Azken talde hori Otxandioko gazteek osatzen dute eta gaur gauekoa izango dute estreinako kontzertua zuzenean.

Zapatuan ere izango da zertan parte hartua eta zertaz gozatu. 17:30ean Urduri dantza taldeak dantzak erakutsiko ditu plazan. Ondoren, Zurrumurru antzerki taldeak umeentzako antzezlan eskainiko du.

Mekoletako jaietan dagoeneko tradizio bihurtu den ekimen batekin jarraituko dute gauean. 23:30etik aurrera VI. Bertso Baserri Biran irtengo dira bertsolariak. Mekoleta inguruan dauden zortzi baserri bisitatuko dituzte eta, horrela, auzo osora zabalduko dute jai giroa.

Azkenik, jaietako amaiera emateko musika kontzertu bi antolatu dituzte. Itziarren Semeak eta Gose taldeek eskainiko dituzte zuzenekoak Mekoletan. ■ J.D.

## Eskola eguna ospatuko dute guraso elkarteak antolatuta

Besteak beste, "kolpbol" izeneko jokoan gurasoak gaztetxoek kontra lehiatzen ikusi ahalko ditugu

Otxandio Herri Eskolan eskola eguna ospatuko dute domeka, guraso elkarteak antolatuta. 11:00etan gurasoek ateak zabalduko dizkiete eta gura duenak azpiegiturak bisitatuko ditu. Segidan, 11:30ean, gimnasioan batuko dira eta gaz-

**Bazkalostean DJ Thobben eta Lore Power taldeek kontzertua eskainiko dute**

**Ohiturari eutsiz, Mekoletako zortzi baserriara hainbat bertsolari irtengo dute VI. Bertso Baserri Biran**

**Zapatu arratsaldean, 17:30etik aurrera, Urduri dantza taldeak dantzak erakutsiko ditu plazan**

tetxoek antolatutako ikuskizunekin (kantuar, antzerkia...) gozatzeko aukera izango dute.

Ondoren, 13:00etan "kolpbol" partidua jokatu dute frontoian gurasoek gaztetxoek kontra. Joko hori valentziar batek asmatu zuen eta futbolaren antzekoa da, baina baloia eskuarekin jokatzen da.

Eguerdian, 14:30ean, bazkaritara batuko dira plazan eta, 17:00etan, pilota partidua jokatu dituzte. Ondoren, 18:30ean, DJ Thobben eta Lore Power taldeek musika elektronikoa eskainiko dute. Azkenik, txokolatada egingo dute. ■ J.D.

ABADIÑO

## Errogatiba eguna ospatzeko gonbita domekan Urkiolan

San Antonio egunerako ohiturazko egitaraua antolatu dute ekainaren 13rako santutegian



Errogatiba egunez iaz hartutako argazkia. J.F.

Eskualdeko zein Bizkaiko hainbat herritako bisitari piloa hartuko dute, ohiturak agintzen duenez, ekainaren 13an, Urkiolako Santutegian. Domekan, goizeko 09:00etan hasita eta 13:00ak arte mezak ospatuko dituzte orduro santutegian, eta Mario Izeta, Bilboko gotzainak, emango du 12:00etako meza nagusia.

Trapagarango abesbatzaren emanaldia ere izango da, eta Abadiño Udalak eta abeltzainen elkarteak antolatuta, bertso-

rien eta trikitilarien emanaldiak ere egongo dira eguerdi partean.

Aita San Antoniok bikoteki-dea topatzen lagundu diezaien eskatzeko, asko izango dira ohi-turari jarraituz domeka honetan ere Urkiolako harriaren bueltan batuko direnak. ■ I.E.

**Bilboko gotzainak, Mario Izetak, emango du ekainaren 13ko meza nagusia**

## Durangaldeko dantzari handi eta txikiak Ezpatandatzari Egunean



A. Dominguez

Durangaldeko hainbat herritako beste hainbeste dantza talde-tako dantzari handi zein txikiak batu ziren joan zen asteburuan Abadiñon. Gerediaga elkarteak antolatzen duen Ezpadantzari Egunean 38. edizioa izan zen Abadiñora eskualdeko zazpi dantza talde-tako dantzariak ekarri zituen. *Dantzari dantza, Bizkaiko Ezpatadantza* eta *soka-dantza* eskaini zizkieten bertarutako ikusleei adin guztietako eskualdeko dantzariak. ■ I.E.

**CENTRAL FORESTAL**  
35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

**Smurfit**  
Nervión  
Pinuarekin egin daitekeen paperik onenak

**Smurfit**  
ibersaac  
Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak!





▣ BERRIZ

# Errumaniako kultura ezagutzen kultur arteko topaketan

Berrizko bosgarren kultur arteko topaketan parte hartzeko aukera domekan Berrizburun

**K**ultura arteko topaketen bosgarren edizioa antolatu dute domekarako Berrizburun. Aurten errumaniarrena izango da kultura nagusia.

Immigrazio Kontseilutik kultura arteko topaketa berriro egiteko beharrezana ikusi dute. Berriz hainbat kulturatako pertsonak bizi direla kontuan hartuta, elkar ezagutu eta harremanetan ipintzeko gunea izango da domekako topaketa. Jaialdian berriztar guztiek parte hartu dezakete.

Kultur ekintzak 11:00etan hasiko dira, henna tailerra, Moldova musika taldearen emanaldia, Errumaniako jantzi tradizionalen desfilea eta Errumaniari buruzko erreportajea ikusteko aukera egongo da. Eguerdian 12:00etan hainbat kulturatako jakien dastaketa egongo da, batez ere, Errumaniako gastronomia ezagutzeko auke-

ra izango dute bertara hurbiltzen direnek. 14:00etan bazkari herrikoia eta arratsaldean musika eta dantzak.

Topaketaren helburuak dira immigrazio gaietan herritarrak sentsibilizatzea, bertakoen eta etorkinen arteko hartu-emana sorraraztea eta etorkinek herribizitan parte hartzea, horrek daukan garrantzia aitortuta ■ G.A.

**Kultura ezberdinetako jendea ezagutu eta harremanetan jartzeko gunea**

**Immigrazioari buruzko gaietan herritarrak sentsibilizatzea da helburuetako bat**



Joan zen urteko Berrizko kultura arteko topaketa.

▣ IZURTZA

# Jaietako kartela hautatzeko lehiaketa antolatu dute

Ekainaren 30era arteko epea ipini du udalak, iraileko herriko jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketara proposamena bidali dezan hala gura duen edonork. Hil honetan udaletxean jasoko dituzte lehiaketara aurkezten diren lan guztiak. Teknika librea erabili ahal dute parte hartzaileek, baina kartelean ezinbestean 'Izurutzako jaiak 2010' esaldia jaso beharko dute euren lanetan.

**250 euroko saria jasoko du udaleko Kultura batzordeak aukeratzen duen kartelak**

Lehiaketan jokoan dagoen saria 250 eurokoa da, eta udaleko Kultura batzordeko ordezkariak izango dute hoberen irizten dutena aukeratzeko ardura. Aurkezten dituzten lan guztiak bilduta erakusketa ipiniko dutela jakinarazi du udalak. Lehiaketaren inguruko oinarri guztiak [www.izurtza.net](http://www.izurtza.net) webgunean daude kontsultagai. ■ I.E.

# Aurtengo aurrekontuei beste 861.000 euro gehitu dizkiete

Inbertsioko atalean diru gehien auzo bideak berrizatu eta konpontzera bideratuko dute

Martxoan Udalbatzarrean onartu zituzten aurtengo aurrekontuei beste 861.000 euro gehituko dizkiete. Joan zen urteko diru sobekinetik 851.000 euro hartuko dituzte eta hainbat inbertsio egin. Inbertsio handiena, 461.000 eurokoa, auzo bideetara bideratuko dute. Jabier Azpitarte Berrizko alkateak adierazi duenez, "Andikona Sarria eta Ereñatik Sarriarako bideak saneatu eta asfaltatuko ditugu". Eitua industrialdean kamioi eta autokarabanetarako aparkalekuak egokitu, hesia ipini eta gutxieneko argiztapena ipin-

tzeko 130.000 euroko diru atala bideratuko da. Lan hauek faseka egingo dituzte. Aparkaleku hauek erabiltzaileek baimendutako sarbidea izango dute.

Murgoitio auzotik igarotzen den ur hornidurarako 60.000 euro bideratuko dute. Haur eskolara 49.000 euro gehiago.

Aurrekontuan egindako aldaketak Udaleko ohiko bilkuran onartu zituzten eguaztenean EAJren eta ezker abertzalearen aldeko botoekin eta EAren abstentzioagaz. PSE-EEko zinegotzia ez zen ohiko bilkurara joan. ■ G.A.

# Udalbiltzaren auzibidea eta Gazako egoera salatu dituzte

Udalak ohiko bilkuran mozio bi onartu ditu aho batez. Udalbiltzaren kontrako epaiketa salatzeke da bata. Fiskalak eta herri-akusazioak hautetsi edota behargin izan diren 22 pertsonarentzat 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatu dituzte. "Auzibidea irmoki salatzeke eta akusazio publikoa bertan behera utzi dezatela" eskatzeko Berrizko udalbatzarrek kontzentrazio-deialdia egin du, bihar, ekainak 12, udalaxe aurrean batzeko.

Bestetik, Gazako egoera salatzeke eta Israelek "Askatasunaren Flotillari" eraso eginda hildako 16 lagun eta zaurituengatik, Palestinako bandera ipiniko dute, lekua zehazteko dago. ■ G.A.

▣ MAÑARIA

# Herritik kanpo ikasten doazenei diru-laguntza

Ikasketak herritik kanpora egiten dituztenentzako diru-laguntza eskariak egiteko epea zabalik

Ekainaren 28ra arteko tartea zabaldu du udalak ikasleen mugikortasunerako diru-laguntza eskabideak aurkeztu ditzaten interesdunek. Lanbide heziketako, Batxilergoko eta unibertsitateko ikasketak egiten herritik kanpora joan beharra dutenek, udalaxean bertan aurkeztu ahal dituzte ekainaren 28ra arte, diru-laguntza jasotzeko eskariak.

Udalaren webgunetik jaitsi edo udaletxean bertan eskuratu daitekeen eskabide-orria beteta aurkeztu behar dute eskatzaileek udaletxean. Horregaz batera, nor-tasun-agiriaren, pasaportearen

edo egoitza-baimenaren kopia, eta ikasturte honetan dagokion unibertsitate edo ikastegian matrikulatuta dagoela erakusten duen ziurtagiria eroan behar ditu eskatzaileak udaletxera.

Beste erakunde publikoren baten diru-laguntza eskatu dutenek, eskaeraren eta ebaizpenaren kopia ere aurkeztu beharko dute ekainaren 28a baino lehen. ■ I.E.

**Ekainaren 28ra arte udaletxean aurkeztu ahalko dira diru-laguntza eskariak**

## JUAN BERISTAIN

### NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

pasqualli

HONDA

STIHL®

SAME

BCS

CARON

VIKING®

**Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03**



▣ MALLABIA



Beharginak parkea konpontzen dabilta.

## Haurreskolako parkeko lanak martxa onean doaz

Uda osterako parkeko lanak eginda egotea aurreikusi dutela azaldu du Aitor Loiola alkateak

Intxaurti haurreskola aurreko parkean maiatzaren 10etik lanean dihardute. Udalak proiektu hau finantzatzeko Tokiko Inbertsioetarako EPlanaren diru-laguntza baliatuko du. Aitor Loiola alkateak jakinarazi duenez, 108.300 euroko inbertsioa izango da. Lasuen enpresari esleitu diotelana.

Gaur egun haurreskolako umeek ez daukate gelatik kanpo egoteko leku egokirik. Lanekin datorren ikasturterako parkea instalatuta gelditzea aurreikusi dute.

Umeentzako jolasgunea ere egokituko dutela azaldu dute.

### Ludoteka

Udako ludotekan izena emateko epea ekainaren 17ra artekoa da. Eskera orriak eskolan, udaletxean eta kultur etxean jaso daitezke.

### Haurreskolako umeek gelatik kanpo egoteko toki egokia izango dutela dio Loiolak

## Iñaki Arregi omenduko dute UEMA Egunean zapatuan

Iñaki Arregi Ihartza Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) teknikarien burua izandakoa martitzen goizean hil zen, gaixoaldi luze baten ondorioz. Egunean egin zioten azken agurra, 19:30ean, Markinako udal-txe zaharreko aretoan. UEMAren sorreratik izan da erakunde koordinatzailea eta zapatu honetan ere, UEMA egunean, omenaldia egingo diote, Mallabian.

Iñaki Arregi Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikarien burua izan da

### Egitaraua

UEMA egunerako, ekainak 12, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Xabier Mendigureni bere ibilbideagatik egingo dioten aitor-tzagaz hasiko dituzte ekitaldiak. Bazkari herrikiaren ostean kantu saioa egingo dute. 12:00etan Xiba jokoak egingo dituzte plazan; arratsaldeko 18:00etan eta gaueko 23:00etan Erlazi eta Damu Dot taldeen kontzertuak izango dira plazan. Gaztetzako ere hainbat ekimen prestatu dituzte. ■ J.G.

▣ ZALDIBAR

Joan zen astean amaitu zuten industrialderako bideko lanen zati bat, Egañako sarreratik Autonomia kalera doan tartea, hain zuzen ere. Idoia Mendiagarai alkateak adierazi duenez, "bide-tarte hau zabaltzean, kotxe eta kamioiak herri erdigunean murriztea" lortu dute, horrela "herri erdiko kaleetan ziurtasun handiagoa" dute oinezkoek errepidea pasatzeko, eta "zarata ere gutxitu egingo da".

Baina oraindik industrialderako "lanak ez daude guztiz bukatuta, faseka egiten gabiltza-eta". Errepidean momentu honetan 90 graduko angeloa egiten duen bihurtzea dago, eta "bertatik ezin dira kamioi handiak igaro" azken fasean bihurtze hori zabaldu egingo dute kamioiak errazago igarotzeko. Beraz, Autonomia kaletik Foru kalera doan tartea egitea falta da eta horretarako "gestioak egiten gabiltza, lurrak zer zabortegetara eraman...". Errepide tarte hori egitera 135.000 euroko diru atala bideratu da. ■ G.A.

## Industrialderako bideko zati bat zabaldu dute

Egañako sarreratik Autonomia kalera doan bide-tarte zabaldu zuten joan zen astean



Industrialderako bidea faseka egiten dabilta.

▣ ABADIÑO

## Ur kontsumoa neurtu guran

Udalak uraren emaria neurtzen duten 1.000 erreduktore banatu ditu herritarren artean. Joan zen zapatuan hasi zuten ekimena, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna batekin bat eginez. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, "erreduktoreak erraz ipintzen dira etxeko txorrostean eta uraren kontsumoa %40 jaisteko ahalmena du". Murriztaileok Traña-Matienako Errota kultur etxean, Traña-Matienako udal bulegoan eta Zelaietako mediatekan jaso daitezke. Lehenengo 1.000 erreduktoreak amaitzen badira udalak gehiago eskuratuko ditu herritarren artean banatzeko.

▣ BERRIZ

## Aratz Azpirik irabazi du lehenengo mural lehiaketa



Aratz Azpiri durangarrak irabazi du Berrizko Lehen Mural Lehiaketa, *Euskal Herriko Mendiak* izeneko lana aurkeztuta. Aratz Azpiri Arte Ederretako 25. urteko ikasleak, Berrizburuko frontoi-tako hormarako aurkeztu duen muralean mendi tontorrek eta basoa irudikatu ditu. Hala, frontoiaren atzeko paisajegaz bat datorren irudia egin du egileak. Azpirik 3000 euroko saria eskuratu du eta orain lau hilabeteko epea dauka paperean aurkeztutakoa hormara erroteko.

Lehiaketara zazpi lan aurkeztu dira. Herritarrek gehien bozkatutako hiru lanetatik epaimahaiak erabaki du irabazlea.

▣ DURANGO

## Turismo bulegoa Donostiako Naturaren aretoan egongo da

Zapatuan eta domekan Donostiako Miramarren izango den Naturaren eta Astialdiaren Aretoan parte hartuko du Durangoko Turismo Bulegoak eta herriko turismo eskaintza aurkeztuko du han ipiniko duten standean. Honako hau da ekimenaren ordutegia: zapatuan, 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era; eta, domekan, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Durangok hainbat eskaintza berezi ditu turistek begira, *Ezagutu mitologia, Zaldi munduan murgiltzea* eta *Sartu zaitez lur azpian barrena*, esaterako.

## Sanfaustoetako kartela on-line bozkatzeko aukera dago

Sanfaustoetarako kartel lehiaketa abiatu du Durangoko Udalak. Aurten kartelak aurkezteko epea aurreratu egin dute. Uztailearen 15a —12:00ak arte— da azken eguna. Lehiaketara aurkezten diren kartelak udaleko webgunean <a href="http://www.durango-udala.net">www.durango-udala.net</a> ikusgai ipiniko dituzte eta herritarrek kartelak gustuko enaren alde bozkatu ahalgo dute uztailearen 19tik 30era. Herritarren botoek azken erabakiaren %50 balio dute; osterantzean, ardura epaimahai baten eskuetan egongo da.

Aurtengo beste nobedade bat euskarriari dagokio: formatu elektronikoan ere aurkeztu ahalgo dira lanak. Lehiaketara aurkezten diren lan guztiekin erakusketa zabalduko dute urriaren 8tik 24ra, Arte eta Historia Museoa.

**MOMOTXO TABERNA**  
Plateruen plaza, 12  
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

"BODEGUILLA"  
TRAÑA-MATIENA  
Tfn. 94 681 43 85

Betikoak flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente kapanaga, 9 - 48215 JURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

Hemen agertu gura baduzu  
deitu!  
94 621 79 02



## BERBAZ &gt;

# “Bizitzari buruz zerbait irakatsi dudala jakiteak asko asetzen nau”

Ikasleekin sortzen diren harremanek “engantxatu” dute Jabi Arbeo irakaskuntzara. 30 urte daroaz irakasle.

**R**afa Nadaleksakea egin aurretik pilota hainbatetan botatzen du. Jokaldia zelan hasiko duen pentsatzeko astia hartzen du. Jabi Arbeo irakasleakuste du profesionalek horixe behar dutela, hausnarketarako tartea hartzea. Irakaskuntzaren inguruan dauzkan hausnarketak konpartitu zituen aurreko astean Ibaizabal ikastolan emandako hitzaldian. Gurekin ere bai.

*Irakasle lanetan 30 urte zabilta. Zelan etorri zitzazun irakasteko gogo?*

Hasieran profesioa baino ez zen. Gustatuz gero eta afinitate puntua baduzu gazteekin, barruan beste istorio bat zabaltzen da, eta disfrutatu egiten duzu. Garrantzitsua da hori, sentimentuak, edukiak eta afektibitatea transmititzen dituzulako. Afektibitatea ezinbesteko balioa da irakaskuntzan. Irakaskuntzan jende askok txarto pasatzen du. Gu ez gara gurasoak baina askotan eurek baino denbora gehiago ematen dugu gazteekin eta sentimentuak daude tartean, ez gabiltza makinekin beharrean. Jakin behar dugu eurak zelan tratatu, eta denak desberdinak dira. Sarri, okertu egiten gara eta bide egokia topatu behar dugu.

*Garaietara ere egokitu beharko zarete.*

Bai. Edukiak ematen ditugu, eta gaitasun batzuk ere garatzen ditugu. Guk gauzak ikasteko eta irakasteko orden bat daukagu. Ikusi, deskribatu, aztertu, konparatu eta azkenean egin egiten dugu, operatu. Irakasleok sarri horrela daukagu egituratuta burua eta horrela ematen ditugu eskolak. Gauzak aldatu egin dira. Argazki kameraren adibideagaz ondo ikus daiteke hori. Guk lehen kamera berri bat genuenean, argazkia atera baino lehen instrukzioen liburua irakurri, probak egin... beldur handia geneukan akatsak egiteko. Errebelatu eta gero ikusten genuen ea argazkiak ondo zeuden eta prozesua oso zehatza izan behar zen. Orain gazteek ez daukate akatsen beldurrik. Akatsak konpondu egiten dira. Eskulibururik irakurri barik zuzenean argazkiak egiten hasten dira. Gure azken gaitasuna operatzea zen, eta orain azkenetik hasten dira, esperimentatzen ikasten dute.

*Teknologiengatik aldatu da pentsaera?*

Operatzeko forma behintzat bai. Ezin duzu planteatu; lehenengo ikusi, analizatu, operatu... Aspertu egiten dira. Ikasketetan hori kontuan hartu behar da. Hainbat arlotan ezin dituzu eskola magistralak eman, aspertu egiten direlako.



“Sarritan gurasoak heltzen ez diren espazio intimoetara heltzen gara”

*Aldaketak gertatu dira orduan. Onera edo txarrerara aldatu dira gauzak?*

Ikasleak beti egon dira onak eta txarrak; baina, orain, teknologia berriei esker, onak oso onak dira. Informazio asko prozesatu dezakete, eta horrek freskotetasun handia ematen die. Alde txarrak ere badaude. Nik esango nuke agian ikasle batzuek oinarri batzuk galdu dituztela; autodiziplina, adibidez. Ezin dute esan “hau irakurri behar dut jakiteko

“Irakasle on erronka handienetakoa ikasteak daukan plazerra transmititzea da”

nolakoa den”. Ez daukate disziplina hori. Abiadura desberdina da.

*Teknologia berriengatik bakarrik?*

Ez, hor beste aldeketa batzuk ere egon dira. Duela 30 urteko eskola porrota eta gaur egungoa ez dira berdinak. Porrot afektiboagatik da hori. Sistema honekin, hipoteka ordaintzeko guraso biek egin behar dute lan, eta seme-alabak sarri bakarrik egoten dira. Askotan gura-

**Jabi Arbeo •**

Irakaslea

- Durangarra
- Iurretako institutuan dabil irakasle

soak nekatuta heldu eta gogorik ez dute izaten seme-alabekin berba egiteko. Badaude ikasle asko euren bizitzan denbora asko bakardadean pasa dutenak. Lehen hezkuntzan oso babestuta egon dira, gero bigarren hezkuntzan gauzak aldatzen dira, eta batxilergoan agian suspentsoak ekartzen hasten dira. Atzean dauden defizitak azaleratzen dira. Adibidez, ez dute autodiziplinarako gaitasunik, ez dutelako erreferenterik; etxean lehen ordenaren eta autodiziplinaren ereduak ziren gurasoak, eta irudi hori aldatu egin da. Afektibitate hori, arreta berezi hori, behar dute gure ikasleek; eskatu egiten dute. Sarritan arlo intimoa ere ateratzen dute gurekin. Hori profesio honetan daukagun gauzarik onena da.

*Irakasleak erreferente bihurtzen zarete?*

Hainbat ikaslerentzat bai. Ikasle batzuek esaten dute: “Jabi, zurekin ikasi dut, baina ez bakarrik profesioari buruz, bizitzari buruz ere ikasi dut”. Horrek asko asetzen du. Baina ez dago formula magikorik, esperimentatu egin behar dugu, eta ez da erraza. Gure profesioak azkenaldian prestigioa galdu duela egia da; baina lana ez da erraza. Sarritan, agian, gurasoak heltzen ez diren espazio intimoetara heltzen gara, eta hori ez da baloratzen.

*Zelan datoz gaur egungo ikasleak?*

Oso ondo prestatuta, eta oso zintzoak dira. Batzuk deskolokatuta daude, mundu honen abiaduragatik. Zaila egiten zaie euren lehenatasunak markatzea. Pentsatzen dute ondo pasatzea dela garrantzitsuena, baina gauza gehiago ere badaude. Ondo pasatu behar da, jakina. Irakasleok daukagun erronka handietariko bat da ikastea plazer bihurtzea, ikasteak ematen duen satisfakzioa transmititzea. ■ A.U.



# EKONOMIA<sup>></sup>

## > IURRETA

Iurreta Institutuko aurtengo saria Gorka Barruetabeña jaso zuen barikuan, Durangaldean euskalgintzan eta enpresagintzan egin duen lanarengatik. Iurretako institutuko aretoan egindako ekitaldian Jabier Arbeo Institutuko irakasleak Gorka Barruetabeñaren ibilbide profesionala gogora ekarri zuen, "Berbaroren bultzatzailetako bat izan zen Durangaldeko hainbat taldegaz elkartuta, ekimen horretatik hainbat adar sortu ziren Plateruena, ERAZ, Anboto eta Di-Da Komunikakzioa".

Gorka Barruetabeña Anbotoko presidentek "emozioz" jaso zuen saria, eta "hiru zatitan banatu gura" izan du. Ikasle garaian ez zela oso ikasle ona gogoratu eta "gurasoek horregatik txarto pasako zuten", beraz sariaren lehen zatia "gurasoei" eskaini die. Bigarrena, "etxeko hirukotearentzako" eta azken zatia Berbaro, Anboto, Plateruena proiektuak aurrera egiteko "lan taldeari, esfortzu kolektiboa izan da eta".

Sari banaketaz gain, ekitaldian Iurreta Institutuko ikasleek diploma jaso zuten ikasketak amaitu dituztelako; orain lan munduan hasiko dute ibilbidea. ■ G.A.

## Gorka Barruetabeña Iurreta institutuko saritua

Berbaro, Eraz, Anboto eta Plateruenaren bultzatzailea izatea azpimarratu dute



Gorka Barruetabeña jaso zuen Iurreta Institutuko saria kultura arloan egindako lanarengatik.

## > ABADIÑO

### + Dendak-ek hitzaldia antolatu du Abadiñon

Dendak berritzeko Eusko Jaurlaritzak iragarriko dituen laguntzen berri eman zien + Dendak-ek merkatariei

+Dendak elkarteko teknikariek dendak modernizatzeko Eusko Jaurlaritzak iragarriko dituen diru laguntzen berri eman zien Abadiñoko dendariei eguen honetan Errota Kultur Etxean.

Hitzaldia +Dendak, merkatarien elkarrekin eta Abadiñoko Udalak antolatu dute, batez ere berri-tze lanak egiteko asmoa duten dendariei eta azken bederatzi hiletan lanak egin dituztenei eskainita-

Hitzaldira joan ziren dendari-iek informazioa jaso zuten MEC (dendak berritzea) izeneko laguntzen ezaugarriez, laguntza jaso dezaketenez inbertsioez, zenbatekoek eta eskaria egiteko betebeharrekoen inguruan.

+Dendak elkarrekin garrantzitsutzat jo du, merkataritxiak bultzatzeko, erakunde publikoek eskaintzen dituzten laguntzen informazioa behar den unean zabaltzea. ■ G.A.

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K



Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

## > DURANGALDEA

### Sektore publikoan greba egin dute CCOO eta UGTk

Herriaren arabera jarraipen desberdina izan dela azaldu du Roberto Martin Durangaldeko CCOOk

Sektore publikoan CCOO eta UGT sindikatuek martitzenerako deitutako greba deialdiak EAEn %25eko jarraipena izan du Osakidetzan; hezkuntza arloan, berriz, %30ekoa. Durangaldean ere antzeko jarraipena izan duela azaldu du Roberto Martinek,

Durangoko CCOOk arduradunak "ez du greba orokorra baztertzen"

Aste bian sektore publikoan huelga deialdi bi izan dira "murrizketei aurre egiteko"

CCOO sindikatuko Durangaldeko arduradunak: "herriaren arabera jarraipen ezberdina izan du".

Bilbon manifestazioa egin zuten eguerdian 3.000 eta 5.000 pertsona inguru bildu zirela esan du Durangoko CCOO-k. "Kalera irten gara gure eskubideak urra-

tuta ikusi ditugulako. Eta mobilizazioekin jarraituko dugu eskubideak murrizten badigute". Roberto Martinek adierazi duenez, "ez dugu greba orokorra baztertzen".

Izan ere, "Espainiako Gobernuak ekainaren 16a ipini du data tope moduan", gobernua, patronala eta sindikatuen artean akordiorik lortzen ez bada, gobernuak lan erreforma dekretuz ezarriko duela adierazi du Durangaldeko CCOO-ko arduradunak, eta hori gertatuz gero "guk ekainaren 17an greba orokorrerako deia egingo dugu".

Bi astetan sektore publikoan greba deialdi bi izan dira, joan zen maiatzaren 25ean ELA, LAB, ESK eta STEE-EILasek deitu zuten "zerbitzu publikoak ahultzeak gizar-te osoan eragina duelako". ■ G.A.

"Bilboko manifestazioan 3.000 eta 5.000 pertsona inguru batu ziren"

## ■ kolaborazioa



Jabier Meruelo  
CNT sindikatua

### CNT-ren 100. urteurrena

1910ean sortu zen CNT sindikatu anarko-sindikalista langileen eskubideak defendatzeko, baina ez sistema kapitalista barrutik pixkanaka-pixkanaka eskubideak lortu ahal izateko. Ohiko langileak gogaituta zeuden euren garaiko politikari eta diktadoreekin eta uste zuten era eraginkorrena iraultza zela. Iraultza horrek puntu inportante bi zeuzkan. Lehenengoa jabetza pribatuarekin amaitzea, hau da jabetza kolektiboan abiatzea; eta bigarrena, inportanteena dena, langileak izatea iraultzaren protagonista. Autogestioaren oinarriarekin Komunismo Libertarioan bizi ahal izateko.

Nahiz eta ahoberokeria eman lezakeen, CNT erakundea, edo hobeto esanda, militanteak, izan litezke autogestioaren esperientziarik handiena Europako historian. 1936ko Gerra Zibileko garaian, batez ere Katalunian, langileek ideia anarkistak eta sozialistak ipini zituzten praktikan. Datu ugari daude honi buruz, adibidez George Orwellek Kataluniari Omenaldia eleberririk historikoan hau idatzi zuen: "Bartzelonaren itxura zoragarria zen. Lehenengo aldiz nire bizitzan, langile klaseak bridak eramaten zitueneko hiri batean nengoen. [...] Ia eraikin guztiak langileen eskuetan zeuden eta bandera gorriekin estaliak edo anarkisten bandera gorri-beltzarekin. [...] dirudun klaseak existitzen utzi zuten hiri bat zirudien".

Historia hau pertsona askori kontatu izan diet eta asko harrিতa geratzen dira mitologiak berbetan nabilelakoan. Benetako memoria historikoa da sistemari min egiten diona, gerrako faxistek eraildakoak omentzen dituen. Gero telebistako tertulietan "jakintsu" batzuek behin eta berriz esango digute kapitalismoa ez dela paradisua baina ez dakitela zer ipini haren ordez. Zer esango zuen Orwell? Engainu unibertsalaren aroan egia esatea egintza iraultzailea da.

Bai, Neruda, loreak lapurtu dizkigute baina lasai, oraindik udaberri batzuk dauzkagu vendetta egiteko.



# KULTURA>



Argazkia: Ana Dominguez

## LITERATURA> SARIKETA

# Julene Azpeitia lehiaketaren sari banaketa San Agustinen

**A**steon banatu ditu Durangoko Udalak Julene Azpeitia lehiaketaren 2010 urteko sariak. Domeka eguerdian, Durangoko San Agustinen egin zuten ohiko sari-banaketa ekitaldia: udaleko eta herriko elkarreetako ordezkariak, eta ipuin, olerkizein bertsoen sailtako lehiaketara aurkeztutako lanengatik sariak jaso dituzten parte hartzaileak elkartu ziren ekitaldian.

Aurten ere adinak kontuan izanik banatu ditu epaimahaiak sariak. Honakoak izan dira Julene Azpeitia lehiaketaren kategoriak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak; DBHko 1. eta 2. mailak; DBHko 3. eta 4. mailak; 17-18 urtekoak; eta 18 urtetik gorakoak.

Sari nagusiez gainera, akzesitak ere banatu zituzten joan zen domekako ekitaldian. Irabazle gaztetxoek liburu sortak jaso zituzten. *Harkaitzeko neska*, *Gerrako pasarte bat*, *Leizeak*, *Zu zarena*, eta *Egunerokoaren eguna* izenburudun lanek, besteak beste, jaso dituzte sarietako batzuk.

June Murua, Lucia Lorenzo, Iñigo Aranburu, Martin Loizate, Paule Alzaga, Arnaitz Iriondo, Maialen Galarza eta Josu Unzueta izan dira ipuinen sailean sari-dunak; Saioa Hernando, Irati Arrieta, Paula Castillo, Eneko Sagardoy eta Aitor Albiztur poesian; eta Julene Sada, Igor Uruburu, Eneko Sagardoy eta Iñigo Legorburu bertso idatzen alorrean. ■ I.E.

## 12 AIKO taldearen 'Dantzazale eguna'

Landako erakustazokan eta Plateruenean ospatuko dute bihar AIKO Dantza taldearen inguruko lagunek Dantzazale Eguna: bazkaria, erromeria eta aurkezpena egingo dituzte.



## 13 Soulrisers-en funk jostaria

Joan zen barikuan, Durangoko Plateruenean eskaini zuen Rock Izar Eskolaren magalean sortutako Soulrisers taldeak aro berriko lehenengo zuzenekoak.



DANTZA > JAIALDIA

# Plateruenean da bihar, dantza eta musika tradizionalaren jaia

Biharko, ekainak 12, antolatu du Dantzazale Eguna AIKO Dantza Taldeak

**E**kainaren 12an, bihar, Landako erakustazokan eta Plateruenean egin dute Dantzazale Eguna ospatzeko hitzordua. Bazkari herrikoiaz eta erromeriaz gainera, AIKO Taldeak argitaratutako liburu-DVD-aren aurkezpena egingo dute.

Orain urte bi abiatu zuten Dantzaldi Ibiltarien ikasturte amaierako bazkari-erromeria egingo dute AIKO taldekoek, Pla-

teruenean. Martitzenetako ikasturtean parte hartu duten ia ehun lagunei zein musika eta dantza tradizionala maite duten guztiei egin diete gonbita.

Jauzi guztiak dantzatzen

saiatuko direla dio

Bikandi irakasleak

Dantzazale guztiek elkarrekin bazkaldu, kantatu eta dantzatzeko eguna da AIKO taldeak antolatutakoa. Aitor Furundarenaren musikak gidatuko duen kantaldia-  
ren ostean izango dute bertaritzen direnek dantza egiteko tartea.

Jauzien inguruko *Urraska* liburua aurkeztuko dutenez, bazkalostean jauzi guztiak dantzatzeko asmoa dutela azaldu digu Sabin Bikandi dantza irakasleak.



AIKO taldeak joan zen ikasturtean Plateruenean egindako saioetako bat. K.Aginako

## Dantza jauziei buruzko ikerketa sakon baten emaitza: DVD-liburua



Euskaraz eta ingelesez argitaratutako lana da AIKO Dantza taldeak prestatu eta bihar aurkeztuko duen DVD-liburua. Miguel Angel Sagasetaren ikertzaileak 70eko hamarkadan Luzaide inguruan bildutako jauzien errepertorio osoaren interpretazio musikala eskaintzen duen lana da berau.

Dantza ikasleentzat zein dantzazale guztientzat sortutako lana da *Urraska*. *Dantza jauziak Sagasetaren bidetik. A New Interpretation of the Jauziak Dances Collected by Sagaset* liburua.

Estatu Batuetako Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroak argitaratu du AIKO Taldearen lana. Dantza, partitura, musika eta irudien bilduma pedagogiko-didaktikoa osatu dute. Besteak beste, Nafarroa Behereko Aiziritze, Bithiriña eta Iholdin egindako grabaketa zaharren irudiak ere bildu dituzte liburuan.

## GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga, 'Etxe' Musikaria

### Ez dira betiko garai onenak

Heldu da uda garaia! Herrietako jaiak, kontzertu ugari, musika jaialdiak be asko. Eguraldi onarekin aprobetxatu beharreko aukera asko. Zuhaitz azpian jarri, gitarra eskuetan hartu eta garagardo batek lagunduta momentu eder bat pasatzeko be aukera ona. Baina "ez dira betiko garai onenak" oraingoak.

Jaialdi ugari ikusteko aukera daukagu. Azkena Rock festibala, BBK Live, AC/DC Bilbon... eta gainera aurretik aipatu dodan moduan herrietako jaiak astebururo. Oporretan joateko asmoa be bai. Frantziako Tourrean be txirindulariak animatzeko gogoia. Bizi dogun krisi garairako gastu larregi.

Horregatik badirudi aurtengo udan jaietan kontzertu gutxiago eta berbena gehiago egongo dala. Dantza gogoia daukanarentzat ederto, kontzertu gogoia daukanarentzat txarrago. Eta jotzeko irrikaz gagozanok oporraldi luzea hartzeko aukera.

Nik behintzat aurtengo kirola eta hondartza edukiko dodaz lagun udan. Kontzerturik ez daukagunez, beste entretenimenteren bat bilatu behar dalako. Egia esan, kezkatzeko modukoa da egoera. Lehen kontzertu asko jotzen ebanak orain gutxiago, eta lehen gutxi jotzen genduanok orain ezer ez.

Horregatik, aurtengo udarako, plan desberdinak biltuko doguz, eta hasteko, laster entzungai egongo dan kantu berri bat egin dogu, musika eta kirola elkartuz.

Domeka honetan be gitarra alde batera itzi ta bizi-kleta hartuta ibiliko gara pedalei eraginaz.

## MUSIKA > KONTZERTUA

### Bartolome Ertzilla eskolako musika modernoko eta bateriako ikasleen saioak

Ekainaren 17an dute emanaldia bateriako ikasleek, eta 18an musika modernokoek

Ikasturte amaieraro bezala hainbat emanaldi dituzte datozen egunetan Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan. Zuzeneko guztietan ikasleak izango dira protagonistak, ikasitakoa erakutsiko dutenak.

Hasteko, ekainaren 15ean eta 16an, musika eskolako aretoan izango dute urteroko ikasturte amaierako emanaldia. Martitzenean 18:00etan izango da hitzordua eta eguaztenean, berri, 19:00etan, Bartolome Ertzillan. Eskolan ikasi daitezkeen askotariko instrumentuak jotzen dituzten ikasleak entzu-

teko aukera izango da egun bi horietakoa. Musika modernoko ikasleek bestalde, eskolako aretoan barik, kanpoaldean, parkean, egingo dute euren emanaldia, ekainaren 17an, 18:15ean. Bateria ikasleen emanaldia, ekainaren 18an, 18:30ean, eskolako aretoan izango da. ■ I.E.

Ekainaren 15, 16, 17 eta 18an dira, musika eskolan, emanaldiak

BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda

Grup CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel.: 94 681 50 17

Arrike  
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03



MUSIKA > ELKARRIZKETA



# Soulrisers: funk eta soul arimagaz

Durangoko Rock Izar Eskolan saxoa eta inprobisazioaren teoria irakasten duen Jose Gallardogaz jardun dugu **Soulrisers** taldeari buruz berbaz. Taldearen zuzendari musikala da bera, eta beste zortzi lagunegaz osatu du funk eta soul musikekiko errespetua eta pasioa oinarri dituen taldea. Plateruenean eman zuten, joan zen barikuan, lehenengo kontzertua

**Orain urte bi baino gehiago Rock Izar eskolan sortuzen taldearen formazioa asko aldatu da azken hilabeteetan, ezta?** Bai, Rock Izar eskolako produkzio-etxeak abiatu zuen proiektua orain pare bat urte, eta orain urte eta erdi inguru proposatu zidaten taldean sartzea; taldearen zuzendari musikala jardutea eskaini zidaten.

**“60ko eta 80ko hamarkadetako soul eta funk doinuak pasioak batzen gaitu”**

**Zein da zuzendari musikalez daukazun egitekoa?**

Gurean bezala, hainbeste jendek osatzen duen talde batean garrantzitsua da zuzendariaren papera. Bederatzi gara, bakoitza leku batetik dator, eta gehienak musikari profesionalak diren arren, koordinazio lana egiten duen nor edo nor behar da...

**Zer helburugaz sortu zuten Rock Izar eskolan taldea?**

Rock Izar eskolaren helburua, *cover band* moduko bat sortzea zen: 60ko hamarkada hasieratik 80ko hamarkada amaiera arteko estiloak jorratuko zituen. Batez ere soul eta funk doinuak landuko zituen taldea sortu gura

zuten, betiere musikagazko errespetuzko jarrera oinarri hartuta. Eszenatoki handietarako talde bat gara, baina gure helburua ez da abesti funky-ak jotzen dituen taldea izatea, funk banda bat izatea baino. Gure ustez, itxurak egitea barik, benetako funka, egiazkoa, egitea da kontua.

**Zer ibilbide duzue taldekideek?**

Taldekideen erdiak jazz musikaren profesionalak gara, eta askok urte mordo daroagu musikaren munduan. Proiektua martxan zegoela sartu nintzen ni, eta taldea osatzeko musikariei probak eginaraztea erabaki genuen. Taldea atzera berriro eratu genuen. Orain urte biko hasierako formazioetik gaur egun abeslariak, Alai nek, baino ez du jarraitzen.

**Rock Izar eskolagaz zer hartu eman duzue taldekideek?**

Taldearen ekoizlea da Rock Izar, eta hemendik sortutakoa da proiektua. Alain abeslaria eta biok, gainera, Rock Izar eskolako irakasleak gara. Orain, baina, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Lapurdiko musikariak gaude taldean. Ez da

**“Oso gustora gaude barikuko Platerueneko kontzertuagaz”**

**“Taldekideen ia erdiak jazz musikaren profesionalak gara”**

**“Hasierako formazioetik Alain abeslariak baino ez du jarraitzen taldean”**

erraza izan proiektuan parte hartzeko jende profesionala aurkitzea, baina batu ditugun taldekideekin oso gustura gabiltza.

**Zer moduz joan zen Platerueneko aurkezpena?**

Pozik geratu ginen, batez ere entzuleen harreragaz eta taldearen zuzenekoagaz. Taldea kontzertu batean probatzeko beharra geneukan, eta momentua zela ikusi dugu. Dena hobetu daitekeen arren, pozarren gaude barikuko kontzertuagaz. Asko ikasten da zuzenekoetatik.

**Dantzatu zuten entzuleek?**

Askotan kosta egiten da eszenatokitik oso argi ikusten den muga entzuleek zeharkatu dezaten lortzea; distantzia eta muga psikologiko moduko bat egoten da. Kontzertu erdi ingururako lortu genuen entzuleak oholtzaragerturaztea eta kontua berotzea. Platerueneko teknikariekin ere oso gustura egon ginen.

**Zeintzuk abestieskaitzen dituzue zuzenekoetan?**

Ray Charles, Sam Cooke eta Aretha Franklin moduko klasikoak, zein Sly And The Family Stone, Marvin Gaye, edo Michael Jacksonen hasierako diskoetako abestiak jotzen ditugu.

**Kontzerturik baduzue lotuta?**

Otsailetik daukagu taldea behin betiko finkatua, eta momentuz ez daukagu aurkezpenaz gainerrako beste kontzerturik aurreikusita. Baina ahal beste kontzertu jotzeko asmoa dugu, jakina. Bide onetik goazela uste dugu, eta horregatik gura dugu egiten duguna entzuleei erakutsi.

**Datorren astean beste hitzordu bat duzue Plateruenean...**

Bai, Rock Izar eskolako irakasle eta ikasleen ikasturte amaierako emanaldia daukagu ekainaren 17an Plateruenean: *comboek*, irakasleen talde bik, eta ikasleek joko dute. ■ I.E.

## Soul eta funk doinuak jatorrian direnagatiko errespetuan oinarrituta

80ko hamarkadatik aurrera, modu eklektikoagoan jorratu izan ei dira soula eta funka: beste estilo batzuekin “diluituta” moduan egon da. “Gu oso puristak gara horretan”, diote Soulriser-ekoek: “guk funk-funka egiten dugu”. Funkaren zuztarrekiko pasio eta errespetu hori da taldeko bederatzi lagunak (Jose Gallardo, Rubén Salvador, Xabier León, Alain Concepción, Aritz Luzuriaga, Ana Urraca, Daniel Tomás, Hilario Rodeiro eta Baptiste Techer) batzen dituen.

Entzuleak ere igartzen du musika noiz dagoen egiatik jota eta noiz den itxurakeria hutsa. Gallardok azpimarratzen duenez, estilo bako-

tzaren forma erritmikoak, estetika eta abar barruan sentitu beharra dago talde bat funk banda “egiazkoa” izateko.

“Belarria eta burmuina beste edozein zentzumen bezala, entrenatu egiten dira” dio Jose Gallardok; zenbat eta gehiago entzun, orduan eta gauza gehiago deszifratzeko gaitasuna izango dugula. “Zenbat eta gehiago entzun ahalmen gehiago duzu estilo desberdinak ulertzeko, eta ondorioz gogoko izateko”. Zerbait arretaz entzun eta gustuko ez dugunetan, zer gertatzen den ez dugulako ulertzen izaten dela dio Gallardok, “lengoaia hori ez dugulako ulertzen”.



MUSIKA > EMANALDIAK

**M**aria Luisa Anido gitarrarekin argentinarraren omenezko izena darman taldea da gaur 22:00etan Berrizen zuzenean entzuteko aukeran dagoena. 'La Dama de la guitarra' ezizenez ezagun egin zen emakumeagaz taldekideek izandako harremanagatik, eta hark gitarrarako musikari dagokionez egin zuen lan eskergagatik ipini zioten taldeari izena.

Asier Pelaez, Jesus Melchor, Sergio Larrion eta Carmen Becerrak osatzen dute egun, 'Anido' gitarra laukotea. Gitarrak eskaintzen dituen baliabideak ahal

Gitarrarako sortutako abesti klasiko eta garaikideak gaur

'20 hatz proiekt' ekarriko dute Berrizera Plaza eta Garmendiak

bezainbeste aprobeztatzea da musikarion helburu nagusia.

Vivaldi, Rossini edo Bizet moduko egile klasikoek lanak interpretatzeaz gain, gitarragaz jotzeko sortutako musika garaikidea ere interpretatzen dute kontzertuetan. Jazza, rocka, zein Hegoamerikako tradizioko musikak uztartzen dituzte.

**Datorren barikurako**

**20 Hatz proiekt** diskoan bildutako kantak eskaintzera ekainaren 18an datoz Berrizko udaletxeko lorategiko oholtzara Iñaki Plaza eta Ion Garmendia. Folk doinuaren tradizioagaz esperimintatuz sortutako doinuak eskainiko dituzte. Instrumentu tradizionalak eta eurek sortutako instrumentuak erabiltzen dituzte sortzaileek: trikitixa, alboka, txistua eta egurrezko zein plastikozko bidoiak.

Kepa Junkeragaz sei urtez jo ostean abiatu dute musikariek ibilbide hau; egitasmo sortzaile eta intuitiboagoaren bilaketan. Trikitixa eta txalapartagaz, soinu eta testura berriak lantzea dute helburu. Perkusioagaz lotutako erritmo biziak sortu dituzte; Berrizen probatu ditzakegunak. ■ I.E.

# Berrizko udaletxeko lorategian zuzeneko musika emanaldiak

Anido gitarra laukotea, eta Iñaki Plaza eta Jon Garmendia entzungai



PINTURA > ERAKUSKETA

## Grifell-en margoen bilduma, ekainean Durangoko Museoko erakusketan

Koadro ezagunen erreplikak egin izan ditu 25 urtez Jesus Mari Grifell-ek

Ekainaren 2tik 27ra arte Durangoko Museoa dago Jesus Maria Grifell margolariaren erakusketa ikusgai. Bere sorkuntza lanaren hasierako urteetan Caravaggio, Picasso,

Lerroak eta formak bilatzea interesatzen zaio gehien egileari



edo Miró bezalako margolarien obra ezagunen erreplikak egiten bazituen ere, berak pentsatu eta sortutako koadroak dira Durangoko erakusketan ipini dituenak. Koadro ezagunen erreplikak egiten 25 urtez jardun ondoren ekin dio bere lan propioak sortzeari.

Madriren bizi den egilearen berbetan, azken erreplikak egiteari uztea, lana "norberarena izateak daukan xarma eta emozioa" bizitzeagatik egin du. Bere barruan zer zegoen jakiteko irrikak bultzatu du Grifell bide hori hartzera.

"Gehien interesatzen zaidana lerroak eta formak bilatzea da" dio margolariak. Bere ustez bestalde, kolorea, "funtsezkoa denetik distraitzeko modu bat" baino ez da izaten sarritan. ■ I.E.

HISTORIA > BERBALDIA

## Datorren astean egingo dute azkenengo berbaldia

EHUko Juan Antonio Quirós irakasleak eskainiko du zikloko azkenengo berbaldia

Atzo, ekainaren 10ean izan da Arkeologia eta Historia berbaldi zikloaren hirugarren emanaldia, Durangoko Museoa. Lorena Elorza arkeologoa eskaini zuen *Lo que empieza cuando termina la excavación. Los trabajos de laboratorio en Arqueología* hitzaldia atzo iluntzean. Hain justu, zikloaren aurtengo helburu nagusiagaz bete-betean bat egin zuen berbaldia eskaini zuen: ezagun eta mediatikoen diren indusketez gainera, arkeologia lanaren beste alderdi batzuk erakustea.

Indusketaren ostean, arkeologoek zein beste hainbat adituk topatutako arrasto guztiak aztertzen eta interpretatzen egiten duten lana erakutsi zuen.

Arkeologiaren inguruko berbaldi zikloko hurrengo hitzordua ekainaren 17an da. Aurreko emanaldiak bezala, 19:00etan izango da hitzaldia, Durangoko museoan. *Tres mil años de historia de una aldea: Zornoztegi de la Edad del Bronce a la Edad Media* gaiari buruz jardungo du Juan Antonio Quirós Castillo EHUko irakasleak. Horrela emango dute zikloa amaitutzat. ■ I.E.

Arkeologia herritarrei gerturatzea dute berbaldiok jomuga

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

EKAINAK 11 20:00etan  
**EUSKAL HERRIA HAITIREN ALDE**  
Elkartasun jaialdia  
JAIALDIA. Sarrera: 5euro.

EKAINAK 12 14:00etatik aurrera  
**DANTZAZALE EGUNA**  
AIKO TALDEA  
DANTZA. Sarrera doan.

EKAINAK 17 21:00etan  
**ROCK IZAR ESKOLAREN JAIALDIA**  
KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**CABARET PANOLI**  
Klown eta umore gaua  
Ekainak 12 • 22:30ean

**PINOTXO**  
Bihar Txobxongilo Taldea  
Ekainak 13 • 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**HITZ**

Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 11 Durango





BAUTISTA  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LAUDIO ABADIÑO

# BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



## HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroskitondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO-HONEN FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAINAREN 30a ARTE DAGO INDARREAN



# Launa Upategia ezagutzen, bisita gidatuen bidez



Ardogintzan tradizio handikoa da Unzalu-Gaztelurrutia familia. Gaur egungo belaunaldiak upategi berria eraiki zuen 2005ean, eta ibilbide osoaren ondorio dira azken urte bietan jasotako sari guztiak. Euren proiektua ezagutzeko aukera eskaintzen dute zapatuetan, bisitariei atea zabalduz.

**Launakoen helburuetako bat ardoaren kultura erakustea da**

**L**auna ardoak nazioartean goraiatuak izaten ari dira azken boladan, eta horren sekretua jakin ahal izateko, denboran atzera egin behar da lehenik. Gizartean oso zabaldua izandako ofizioa da ardogintzarena. Zazpi belaunaldi ardoari lotuta eman ondoren, Teodoro Unzaluk eta Maria Felisa Gaztelurrutiak upategia eraikitzea erabaki zuten Eskuernagan, 1978an. Ofizio honetan jardun zuten, euren sema-alabek –Iker, Unax eta Usurik– erreleboa hartu arte. Ikerrek enologo ikasketak egin zituen Logroñon eta Frantzian, eta 1995ean hasi zen buru-belarri lanean Eskuernagako upategian.

Ilusioak, lanak eta ardoaren kalitatea hobetu gura izanak,

upategi berria eraikitzea eraman zuen sendi hau 2005ean. Biasteriko upategi berria lur azpian eraikia dago, mahastiz inguratua eta kantauriar mendikatearen altzoan. Errioxako upategirik garaiena da Launakoa. Bertan ekoiztu eta ontzen dute ardo mimo handiz; altuera eta hotza ei dira baldintza egokienak. Euren ardoaren %90 ondua izaten da, eta %10 gaztea. Gurasoen sasoian, %100 urteko ardo izaten ei zen; joerak aldatzen dabiltzala diote.

## Bisita gidatuak

Ardoaren ekoizpenaz gainera, Launakoen helburuetako bat ardoaren kultura erakustea eta zabaltzea da; badituzte horreta-

rako egitasmoak. Zapatuetan, bisitariak hartzen dituzte Biasteriko upategian.

Lehenik eta behin pare bat ardoren dastaketa prestatzen dute, mokadutxo batez lagundurik. Ingurunea aprobeztatu eta mahastigintza zuzenean ezagutzeko aukera ematen dute ondoren. Mahatsa zelatan batzen dute, zer neurri, zer baldintza... oso kontu garrantzitsua ikusten dute jendeak prozesua hurretik ezagutzeari. Gero, elaborazioan murgiltzen dira: deposito motak eta ezaugarriak, ekoizpena, ontze prozesua... ardo kupeletan sartzeak geroko kalitatean duen eragina ere azaltzen dute.


Zelatan ez, Euskal Herrian egonda, hurrengo pausua mahai bueltan batzea da. Bertako produktu tipikoez osatutako menua, eta etxeko ardoen dastaketa uztartzen dira otorduan. Launako hiru bat ardo probatzen dituzte bisitatiek.

Honetaz gainera, Biasterira osteratxo egiteko ere aprobeztatu daiteke egun pasa interesgarri hau. Informazio gehiago: [www.bodegaslauna.com](http://www.bodegaslauna.com).

**Ekoizpena zuzenean ezagutzeko aukera ematen dute**

**Produktu tipikoak eta etxeko ardoen dastaketa uztartzen dira otorduan**





# Uda 2010

Babesleak:





# Tipi-tipa Durangaldea ezagutzen

**Durangaldea zeharkatzen duen GR-229 mendiko ibilbide luzeak oinezan eskualdeko bazterrak ezagutzeko aukera eskaintzen du**

Ehundaka urteko historia bizkarrean duela, Durangaldea merkantzien garraiorako derrigorrezko pasagune izan da. Horregatik, bide, galtzada eta bidexka asko aurkitu daitezke inguruetan. Erakundeek denboraren joanak apurka-apurka hondatutako bideak berreskuratzeko apustua egin zutenean, eskualdea ezagutzera emateko modua izan zitekeela aurreikusiz, izaera turistikoa ere gehitu zioten sare konplexu horri.

Horrela, haranak zeharkatuz eta mendiak besarkatuz, GR-229 Mikeldi mendiko ibilbide luzeak herriguneak auzoekin lotzen ditu eta bertan dabilenari eskualdeko errealitate aberatsa ezagutzeko aukera eskaintzen dio.

Mendiko ibilbide luzeak paisaia dotoreak denon bistara ipintzeaz gainera, herrigunea auzoekin lotzen du

Ibilbideak 86 kilometro ditu gutxi gorabehera. Bost etapatan banatuz gero, edonork egiteko modukoa da, ez duelako aparteko zailtasunik. GR-229 mendiko ibilbide luzeak Durangaldeko paisaiak bisitatzeko aukera eskaintzen digu. Pagadi hostotsuak, zelai berdeak, mendi arrokatsuak... ibilbideak aberastasun horri guztiari bidea zabaltzen dio.

Ibilbidea edonon hasi eta amaitu daiteke; bakoitzaren arabera erabakia da. Durangoko San Pedro ermita, esaterako, toki aproposa da ibilbideari ekiteko. Durangoko alde zaharra bisitatu ondoren Mañarirantz abiatuta, izen bereko erreka, Untxillatzeko gandorra eta Artabillako hartxintzar bidea izango ditugu bidelagun. Mañaria atzean utzita, San Martin ermitaren paretik Mugarra mendia bistaratuko zaigu, bere handitasun osoan.

Handik Atxartera jaitsiko gara Abadiñoko lurretara heldu arte eta laster Astxiki mendiaren soslai arrokatsuak ongietorria egingo digu. Bertako paisaiak gozatu eta hurrengora arte agurtutakoan, Apatamonasteriorantz abiatuko gara lehenengo eta Elorriora gero, hurrengo tarteari ekiteko.



Eskualdeko mendiak, pagadiak zein herriak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzen du ibilbideak

Elorrioko herrigunean sartu gaitzke edo herria albotik igaro dezakegu. Batetik zein bestetik aurrera eginda Berrizera helduko gara eta Zaldibarko norabidea hartuko dugu. Handik Garaira igoko gara eta eskualdea ezkerrean dugula aurrerantz eginez — Jandolamendi mendia eta Oromiño auzoak igarota, besteak beste— Zornotzan sartuko gara. 21 kilometro inguru ditu azken aurreko etapa horrek.

GR-229 Mikeldi ibilbidea amaitzeko berriro Durangora bueltatzea besterik ez zaigu geratzen. 22 kilometrotan Urtemondo eta Gantzorrotz gainak pasatu eta Bernagoiti, Bernabeiti, Gibela eta Santa Luzia zeharkatuko ditugu, Durangora heldu aurretik.

Esandako moduan, ibilbidea bost etapatan egitea gomendatzen dugu, atsedenerako tarteari hartuz.

## IBILBIDEA

### Lehenengo etapa

Bidea: Durango-Untzillatx-Urkiola  
Luzera: 15 km

### Bigarren etapa

Bidea: Urkiola-Anboto-Elorrio  
Luzera: 14 km

### Hirugarren etapa

Bidea: Elorrio-Berriz-Sarrimendi-Garai  
Luzera: 25 km

### Laugarren etapa

Bidea: Garai-Jandolamendi-Zornotza  
Luzera: 21 km

### Bosgarren etapa

Bidea: Zornotza-Urtemondo-Durango  
Luzera: 23 km

# otxandioko igerilekuak

**IREKITA**  
ekainaren 15etik  
irailaren 15a arte

**ORDUTEGIA**  
goizeko 11:00etatik  
arratsaldeko 20:00ak arte





# "Zaldiz ibiltzen joateak deskonektatzeko balio du"

Uda sasoian denbora gehiago izaten dugu urtean zehar alde batera utzi ditugun zaletasunei ekiteko. Zaldiketa ikastaroak ematen ditu Emilio Ramon Goitiandiak Iurretako Zelai Alai hipika eskolan.



**Zelan sortu zaizu zaldienganako zaletasuna?**  
Orain urte batzuk zezenen hazkuntzaren inguruko erreportaia egin nuen eta etxalde hartako jabeak zaldien mundua erakutsi zidan. Hainbesteko zirrara sortu zidan ze zaldiz ibiltzen hasi nintzen pentsatu barik honetan lan egingo nuela.

**Noiztik diharduzu irakasle?**  
Profesionalki hamabost urte dira.

**Harrapatu egiten zaituen zaletasuna da?**  
Zaldiz ibiltzea hain bizi eta zoragarria izanda, denbora ahal duzun lekutik ateratzen duzu. Bero edo hotz egin, zure klasea astean deskonektatzen duzun momentua izaten da. Mendira joatea erabakiz gero, edo pistan lanean, denbora igarri barik pasatzen da, beti ere igo baino hobeto bajatzen zaren bermearekin.

**Zer ikastaro eskaintzen duzue?**  
Zelai Alain zaldizko baten lehenengo pausoak ematek txapelketetara parte hartzera arteko ibilbidea osatzen dugu.

**Hipoterapia ere lantzen duzue.**  
Zaldiketako espezialitate honek pazienteari gaitasun psikomotor zein emozionalak hobetzen laguntzen dio. Ikuspegi fisikotik zaldiaren gainean ipintzeak zaldizkoaren 90etik 120ra gihar mugitzea esan nahi du. Zaldiaren gorputzeko berotasunarekin eta ibiltzean egiten duen mugimenduak hipoterapeutaren zuzendaritzapean funtzionaltasunean hobekuntza sortzen du.

Zaldiz ibiltzea hain bizi eta zoragarria denez, denbora ahal duzun lekutik ateratzen duzu

Mugitzeko arazoak dituenarentzat gurpildun aukia utzi eta pista baten ibiltzeak batzuetan funtzionalak baino garrantzitsuagoak diren balio emozionalak eta terapeutikoak bultzatzen ditu.

**Zaldi bakoitza ezagutu beharko duzue.**  
Zaldi bakoitzak bere pertsonalitatea du bere heziketa, arraza eta historiaren arabera. Hala ere, pertsonak baino gutxiago konplikatzen dira, ez dakitelako gezurrik esaten, eta horrek gure arteko harremana asko errazten duela esan daiteke.

**Bere pertsonalitateko zein ezaugarri azpimarratuko zenituzke?**  
Animalia belarjalea da, beraz, harrapakin moduan jokatzeko du eta ez harrapari moduan. Bere burua, reflexuak eta baliabide fisikoak ihes egitera bideratuta daude, ez borrokarik. Ezaugarri horrek gizakiengandik bereizten ditu. Memoria ona dauka, usaimen eta entzumenean oinarrituta.

Zaldia pazientzia handikoa da, baina harrapakina izanda ez du bere egoerari buruzko informaziorik ematen

**Umore txarrez jartzen dituen zerbait egongo da ba.**  
Pazientzia handikoak eta lanerako prestuak dira, baina harrapakinak direnez beraien egoerari buruzko informazio asko ez ematen saiatzen dira. Hala ere, zaratek, mugimendu bortitzek edo adi jartzen dituen edozerk haserrarazi ditzake edo zaldiak ihes egitera bultzatu ditzake.

**Zaldiekin berba egiten duzue?**  
Lasaitu egiten direla diote. Edozein animaliarekin lasaitasunez eta patxadaz berba egitea ona da tonuak eta keinuek gure intentzioak adierazten dituztelako, baina horrek ez du esan nahi esaten gabiltzaren edukia ulertzen dutenik. Zaldia ez da etxe-animalia txakurraren edo katuaren moduan, beraz, harremana ezberdina da. Beraiekin berba egiten dut, baina ez dute berrikerdialdik behar nirekin lotura bat sortzeko.

**Udako ikastaro trinkoak**  
Teoriko eta praktikoa (talde bakoitzaren mailaren arabekoak)  
Talde murriztuak (gehienez 6 ikasle taldeko)  
Orduetgia: 10:00etatik 12:00etara  
Prezioa: 25euro eguneko

**Lehen hartuemana**  
Inoiz ez bazara zaldian ibili, hauxe duzu aukerarik onena.  
Umeak eta helduak  
Prezioa: 20euro klaseko

Informa zaitez  
691 74 66 11

**Zelai Alai** Hipika Eskola Iurreta  
Gaztañatza Auzoa, z/g  
48215 Iurreta

Zure zati bat

**UNDARRI BIKE**

Bizikleten salmenta eta konponketa

Bidebarrieta, 5 • 94 681 78 08  
48215 IURRETA  
undarribike@undarribike.com  
www.undarribike.com

salmenta, konponketa eta boutiquea

**MOTOS TABIRA**

kontseziario ofiziala

BENELL - SCORPA - AJP  
KEEWAY - PIAGGIO

Pol. Arzobia, 10-b pabilioia 48220 MATIENA-Abadiño

94 681 4068  
www.motostabira.com





## POL-POL

Barrenkale 19 -Durango  
Tel.: 94 620 29 69

Gosariak 06:30etik aurrera.  
Pintxoak. Kafeak. Terraza  
zerbitzua 16:00etatik aurrera.



## KAFE KANTOI

Learreta-Markina kalea, Berriz

Ingurune paregabean terraza  
eder bat gerizpean zein  
eguzkitan egoteko.  
Gosariak eta gosariak, goizeko  
07:30etatik aurrera. Aukeratu  
Kantoi taberna zure momentu  
onenetarako!



## MOMOTXO

Plateruen plaza - Durango  
Tel.: 94 681 10 06

Jateko zein egoteko leku  
paregabea. Jateko:  
kazolatxoak, bokatak,  
entsalada bereziak... Egoteko:  
terrazza nahiz barruko txoko  
berezetan.  
Etorri zaitetz Momotxo  
tabernara!



## GANEKOETXE

Elizondo, z/g-Berriz  
Tel.: 94 682 40 27

Antzinako baserri baten ondoan gerizpe gozoan, etxeko moduan sentituko zara. Kartatik plater bat gomendatzen dizugu: arrain errea. Astegunetan eguneko menua.



## GORA GORA kafetegi-delicatessen

Arriluzea 2 behea-Tabira  
Tel.: 94 681 13 84

Udarekin batera dastatu gure platerrak: bokata beroak, entsaladak, razioak, pintxoak... Eta igandeetan gure raba bereziak Etorri zaitez gurera!



## BETIXU JATETXEA

Iturburu 9-lurreta Tel.: 94 681 78 47

Udako ordutegi berezia!  
Uztailaren 15etik irailaren 15era:  
Pikatzeko afariak 21-23:  
asteartetik larunbatera, terrazan  
Jantokiko ordutegiak:  
Bazkariak:  
Asteartetik ostiralera 13-16  
Larunbat eta igandea 14-16  
Afariak:  
ostegunetik larunbatera 21-23





# Elorrioko historian zehar oinez

**Ekainaren 30ean inauguratuko dute herriaren arte eta historia ondarea elorriar zein bisitariei ezagutzera emateko egokitu duten ibilbidea**

'Ondare ibilbideak' izenagaz bataiatu dute Elorrioko historiaren gordailu diren monumentuak eta hiribilduaren garapen historikoa ezagutzera ematea helburu duen herrigunean zeharreko ibilbidea. Ipinita daude dagoeneko geldialdiak marcatzen dituzten lauzak, eta ekainaren 30ean egingo dute ibilbidearen inaugurazio ekitaldia.

Elorrio hiribildua sortu zeneko hasierako etxe eta eraikinetatik bidaia abiatu, eta ondorengo urte eta mendeetako garapena ezagutzeko interesa duten elorriar zein bisitari guztiei begira ipini du udalak ekimena martxan.

Batetik, eraikin edo monumentu bakoitzaren sorrera sasoia eta ezaugarriak azaltzen dituzten plakak ipini dituzte ibilbidean proposatzen diren geldigunetan.

Herriko 30 txokotan ipini dituzten plaketan herritar zein bisitariak irakurgai izango duten informazioak gainera, argibide zehatzagoak biltzen dituzten audiogidak ere eskainiko dizkiete bisitariei.

Euskara, gaztelania, ingeles, frantses eta katalanezko bertsioetan izango dute bisitariak audiogidazerbitzua ere baliagarri.

Toti Martínez de Lezea idazleak prestatutako dira audiogidetak jatorrizko gaztelaniazko testuak, eta horiek oinarri hartuta euskarazko moldaketa libreka egin du Jesus Eguzki atxondarrak.

## □ Natur ibilbidea □

Auzoetako ondarearen inguruko ibilbide bat osatzea, hain zuzen, 'Natur ibilbideak' izena hartuko duena da Udalak epe luzera begira daukan beste egitasmoetako bat. Herriko auzoak lotuko dituen bidea osatuz, Elorrioko ondare naturalaren eta nekazaritzagunearen ondarea ezagutzera ematea da bigarren proiektu honen helburua: Elorrioren naturagaz lotutako aberastasuna ere ezagutzera ematea.

Hiribilduaren sarrera adierazten zuen dorretxea izango da ekainaren 30ean inauguratuko duten Ondare Ibilbidearen abiapuntua, bai



Eraikin bakoitzari buruzko informazioa audiogida eta plaketan aukeran

eta bisitarien lehenengo geldialdia ere. Hortxe hasiko da Elorrioko hiribilduaren sorreraren historiari buruzko kontakizuna.

Erreka kalean gora abiatuta egingo du aurrera hiribilduaren historian zeharreko ibilbideak, eta Arriola kaletik bueltatuko dira bidea egiten dutenak plazara.

Ondare Ibilbidearen hurrengo pausua, hiribilduaren aldira zirenekoetan zeharrekoak izango dira: Berriotxoa kaletik abiatuta, Tola jauregiraino ailegatu arte. Handik Kurutzagaraino egingo dute bidea, eta Elizburu kaletik bueltatuko dira ibilbidea egiten duten bisitari eta herritarrek abiapuntura.

## ATZERA BIDAIA

Hasieran auzoak, gero San Agustin, eta geroago herri txiki harresidun bat, gipuzkoarren erasoetatik babesteko sortua. Elorrio zelakoa izan zen irudikatze modu ona izan daiteke Portalen jarri duten plakari begiratzea. Bertan harresiak inguratutako etxe batzuk ikusi daitezke. Sorrerako kaleak dira horiek, gaurko Errekakale eta Kanpokale. San Agustin zen hasiera hartan Elorrioko erdigunea; harrizko bidetik hara joaten ziren elorriarrak elizara, azokara, erromeriara. Geroago hasi zen herria harresietatik kanpora zabaltzen. Sortzez Garbiaren basilika Elorriotik Ameriketara dirua egitera irtendako familien diruagaz egin zen. Bandoen arteko gatazkak, merkatarien etxeak, aspaldiko ospakizunak... asko bizi izan dute Elorrioko harriek. Herriko bizitza horren berri izateko bidaia egitea aukera polita izan daiteke herria hobeto ezagutzeko.



**Zure uda preziorik onenean**

**EROSKI**  
40 zurekin ABADIÑO

**telepizza**<sup>®</sup>

Askatasun etorbidea, 25  
Tel.: 94 621 81 86  
Durango

**SALTOKIAN ZEIN ERAMATEKO 2x1**  
Pizza Ertainak eta Handiak  
4 osagai edo gehiagorekin  
Bigarrena balio berekoa edo gutxiago  
asteko zazpi egunetan balio du

**TOLDOAK, PERTSIANAK ETA LEIHOAK**

Lantegia:  
Eizaga z/g  
48260 Ermua  
Tel.: 943 176 601  
Faxa: 943 174 868  
Gipuzkoa etorb. 24 bis  
Tel.: 943 170 904  
48260 Ermua

Oiz kalea 10  
Durango  
Autobus geltoki ondoan  
Tel.: 94-620 20-81  
ventanaego@euskalnet.net



# Furgoneta hartu, eta abenturan murgiltzera



**Xarma berezia duen bidaia mota da furgonetan egindakoa. Ondo antolatuz gero, etxean moduan bidaiatu daiteke ibilgailu honetan.**

Udarako plan alternatiboa izan daiteke furgonetako bidaiarena. Honen aldeko aukera batez ere gazteek egin arren, ibilgailua ondo egokitu eta plana txukun diseinatu gero edozeinek hasi dezake bere abentura propioa.

Furgoneta motak bidaia baldintzatuko du. Gaur egun komertzializatzen diren ibilgailu hauetako asko berez datoz ekipamenduagaz: sukaldea, ohea, armairuak... beste batzuk, ostera, ez. Norberak egokitzea da aukera bat, edo bestela

izango dugu, eta helmugan, itsasaren mailara dagoen lurraldea aurkituko dugu. Kanalek eta hiriek maiteminduko gaituzte. Aste pare baterako plan itzela.

Kroaziak jarraitzaile ugari ditu azkenaldian. Bertarako bidaia luzea egin ostean, kostalde osoa zeharkatzen du jende askok. Prezioak hemen baino merkeagoak dira, leku turistiko batzuk salbu.

Dena dela, modan hurragoko helburuak daude egun. Frantzia, Italia, Portugal eta Suitza nabarmendu daitezke. Kilometro gutxiago, eta gasolina ere gutxiago. Izan ere, erregai kontsumoa ere kontuan hartzeko faktorea da, zelan ez.

Furgonetak eskaintzen duen abantaila nagusia lekuz-leku mugitzeko erraztasuna da

## Asteburuak

Batzuek ez dute opor luzerik izaten, eta furgonetak asteburuetarako aukera eskaintzen du. Asturiaseko paisajearen kontrastea edo Pirinioetako ibilaldiak eskura daude, egunerokotik irten eta arnasa apur bat hartzeko.

Bidaiari ekin aurretik beharrezkoa da furgoneta ondo prestatzea, eta horretaz gainera baliagarri izan daitezkeen tresnak eroatea. Esaterako, haima bat, bere mahai eta aulkiakin, lagungarri da atsedean hartzeko uneetan, baita jatorduetarako ere. Bizikletak ere eroan ditzakete kirolzaleek.

alternatibak bilatzea. Lehenengo kasuan, furgonetak bizi-baldintzetarako independentzia emango digu, batez ere lo egiteko eta jateko. Bigarren kasuan, furgonetak ibilgailuaren funtzioa hartuko luke bakarrik; ostatu eta jatetxeak sartu beharko genituzke gure agendan. Kanpinak ere leku atseginak dira, gehienetan merkeak, gainera.

## Europa

Furgonetak eskaintzen duen abantaila nagusia batetik bestera mugitzeko erraztasuna da. Beste bidai mota batzuekin alderatuz, hainbat herrialde edo paraje ezagutu ditzakegu bolantea hartuz. Gaur egun, Europa da bisitatuenetakoa.

Herbehereak helmuga interesgarria izan daiteke. Bidean, Frantzia eta Belgika ezagutzeko parada

Europari dagokionez, Frantzia, Italia, Portugal eta Suitza daude gaur egun modan

## Itsasoa zeharkatu eta irlak ezagutzeko bideak

Irlak bisitatzeko, ferry estiloko itsasontziek furgoneta eta guzti pasatzeko aukera ematen digute. Gero eta jende gehiagok hartzen du itsasoa zeharkatzeko txartela.

*Furgoneteroen* artean arrakasta izaten ari den bidaia Korsikarako da. Uharte ikusgarria da, hondartzak, mendiak... eta bidaia laburra ez izan arren, bisitatzeko merezi duen herrialdea dela diote bertara joaten diren gehienek. Marsella, Niza eta Toulon dira itsasontzia hartzeko leku ohikoenak, eta Ajaccio, Ille Rousse eta Bastian sartzen da lurrean, besteak beste.

Bestalde, Balear Uharteetara zein Marokora joateko ere gero eta ohitura handiagoa dago ferryak hartzeko.



## ALLUITZ MOTOR, S.A.



Comercial AUDI  
Estanislao Labairu, 3  
Telf.: 94 621 73 27  
Fax: 94 620 10 75  
**48200 DURANGO**



Comercial VW / Taller  
Alluitz, z/g.  
Telf.: 94 620 20 04  
Fax: 94 620 09 98  
**48200 DURANGO**



California Berria  
Egunero lagun berriak



# Udako oporretan euskaraz gozatzeko hainbat aukera



**Udan euskaraz bizitzeko aukera ugari ditugu. Euskaraz aritu eta Euskal Herria oinez edo bizikletan ezagutzeko aukera eskaintzen digu AEK-k. Topagunea eta EHNEk bestalde, baserri giroan euskara erabiltzeko aukera.**

Udako ikastaro eta barnetegiak antolatu ditu AEK-k eta dagoeneko zabalik dago izen emateko epea. Konplexuak eta lotsak alde batera utzi eta AEK-k, uda honetarako, "mihi puntan duzuna" ateratzeko gonbita egiten du, hortxe-hortxe izaten duzun aditza gogora ekartzeko edo hanka sartzeko beldurrak alde batera uzteko. Hainbat aukera eskaintzen ditu uztaile, abuztu edo irailean, euskara ikasi eta praktikatzen. Aukeren artean barnetegi ibiltari bi antolatu dituzte. Bata, bizikletaz egiteko; eta bestea, berriz, oinez.

## Bizikletaz

Bizikletaz, pedalei eraginda, Euskal Herriko leku polit ugari bisitatzeko aukera eskaintzen du AEK-k, besteak beste, Bizkaiko Gorbeia aldea, Arabako Lautada, Urbasa, Andia, Ultzamako herriak, Erronkari hara-

na, Otsagi, Irati, Aralar... Ibilbidea, uztailearen 17an Urduñan hasi eta 16 egun geroago, mendaterik mendate 1000 kilometro inguru egin ondoren, Zarauzko hondartzara helduko dira, eta bertan ibilbidea amaitu. Eguneko 65 bat kilometro egingo dituzte, gehienak goizean. Bidean zehar behar beste geldione egingo dituzte leku interesgarriak ikusteko.

Udan ere euskara ahoan ibiltzeko aukera ugari, gustu guztietarako. Izen emateko epea zabalik dago

## Oinez

Barnetegi honetan Euskal Herria mendebalek ekialdeko muturreraino oinez zeharkatzea dute helburu. Uztailearen hiruan Bizkaiko Urduña ingurutik abiatu eta Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar eta bestelako mendiguneetatik igaro ondoren, uztailearen 17an Nafarroako Hiru Erregeen Mahaiaren tontorrera iritsiko dira, Euskal Herriko gailurrera, hain zuzen ere.

Bizikletaz zein oinez joan, ibilbideak lasai egingo dituzte, partaideen erritmoari egokituz. Gainera, etapa askotan bide errazagoak eta laburragoak egiteko aukera egongo da. Eta behar izanez gero furgoneta ere erabili liteke etapa laburtzeko. Erosoago ibiltzeko pisu guztia furgonetan eramango dute.

Barnetegi ibiltariaren helburuen artean dira, besteak beste, 16 egunez euskaraz bizitzea; Euskal Herria

hobeto ezagutzea: herriak, leku bitxiak, ohiturak, hiztunak, euskalkiak...; eta bizikletaz edo oinez ibiltzea gustuko dutenek opor ederrak pasatzea.

Barnetegi ibiltariaren prezioa 450 eurokoa da. Prezio barruan laguntza-furgoneta, lo egiteko lekuak, jatordu guztiak eta ibilbideari buruzko liburuxkak eta mapak daude.

**Euskara ikasi familian eta askotariko jarduerekin**

## Ikastaro trinkoak

Etiket hur euskara ikasteko; urtean ikasitakoa hobetzeko; edota maila ofizialak (3. maila eta EGA tartean) lortzeko.

## Udako barnetegiak

Udan euskara ikasteko eta hobetzeko modurik politena. Barnetegian denetarako astia izango duzu: eskoletarako ez ezik, txangoetarako, ekintzetarako, lagun berriak egiteko eta, azken batean, egun osoan euskaraz bizitzeko.

## Familientzako barnetegiak

Guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko. Begirale-hezitzaile prestuek seme-alabak zainduko dituzte gurasoak eskolan dauden bitartean. Haurrentzako eta gurasoentzako aparteko oporraldia.

## Jarduera barnetegiak

Eskolez gain hainbat ekintza interesgarri egiteko aukera, sukaldaritza, bertsoarritza, antzerkigintza, dantza, pilota, abentura kirola... Gustuko gauzak egin bitartean euskara praktikatzeko.

## Kutsidazu bidea...EHNE eta Topagunearen eskutik

Mintzapraktika programek aisialdia, gozamen eta euskara uztartzen dute, eta, hiru elementuok kontuan hartuta, udan ere mingaina astindu nahi duten berbalagunentzako aukera berria landu dute elkarlanean Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak. Udan baserri giroan eta euskaraz bizi gura dutenek Bizkaiko (Busturialdean eta Mungialdean) 17 baserrian izango dute horretarako aukera.

Euskaraz berba egitea baserriko lanetan laguntzearan truke. Urbanita hutsa bazara ere, lasai, EHNEk prestakuntza saio xumea eskainiko die parte hartzaileei, baserriko lanaren oinarri-oinarritzeko tekniken berri izateko.

Programa uztaile, abuztua eta irailean jarriko da martxan. Izena emateko epea ekainaren 25ean amaituko da. Informazio gehiago: [mintzapraktika@topagunea.org](mailto:mintzapraktika@topagunea.org) edo 948 13 26 93 telefonoan.

*Udan ere euskaraz!*



**Bizkaiko Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Bizkaia**

Kultura Saila  
Departamento de Cultura





# Lagun giroan ardoaren kultura ezagutuz

Maiatzaren 22an lurreta Txirrindulari Elkartekoak joan ziren Launa upategira bisitan. Euretako batzuek, gainera, bizikletaz egin zuten harainoko bidea. Errepikatze moduko plana dela azaldu digute. Hona hemen euren esperientzia.

Irteerak antolatzen ohitura handikoak dira Iurretako Txirrindulari Elkartekoak. Bizikleta lagun dutela hara eta hona ibiltzen dira, eta asteburu honetan ere, adibidez, Luchon-Baiona martxan parte hartzen dabilta, Tourmalet eta Aspin bezalako mendateak igoz.

Maiatzaren 22an, goizetik irten zuten iurretarek Biasteri aldera. 14 txirrindulariak lau taldeetan banatu ziren, bakoitzaren erritmoaren arabera ibiltzeko. Justo Alberdi elkarteko kideak azaldu digunez, 100 kilometrotik gora egin zituzten pedalei eragiten, Urkiola eta Albaina moduko mendateak zeharkatuz. "Bidean, gari-tzak eta mahastiak alboan utziz, paisaje politak" ikusi zituzten. Gainera, errepideak ere erosoak ei ziren, "trafiko gutxi" zebilen-eta.

Heldu ziren Launa upategira, eta han zain zeuden beste 11 bat lagun, autobusez joandakoak. Dutxa hartu zuten txirrindulariek, eta gero dastaketan elkartu ziren. "Instalazioek eta inguruneak harritu gintuzten", Alberdik dioenez. "Unaxek bisitan lagundu gintuen, gauza guztiak oso ondo azalduz". Atentzioa deitu zien instalazioen garbitasunak, baita lurpean ego-

teak ere. Alberdi lehendik ere Laurantan egondakoa zen, eta bere ustez, "denbora pasa ahala geroago eta ardo hobea egin dute". "Kalitate aldetik apustu garrantzitsua" egin dutela adierazi digu.

## Mahaiaren bueltan

Bazkarian hiru ardo mota edan zituzten iurretarek: urtekoa, Kriantza plus eta Erreserbakoa. Jatekoa ere nabarmendu dute, eta giro onean pasa zituztela bai eguerdia baita egun osoa ere. Paisajea, jan-edana, giroa... lagunarteko girorako aukera paregabea, beraz. Alberdik kontatu digunez, bisita amaitzean "berriz etortzeko modukoa delako sentsazioa" izan zuten.

Hurrengo irteerarako ere kontuan izango ei dute txirrindulariok Launa upategiaren eskaintza.

"Instalazioek eta inguruneak harritu gintuzten"



## 11 domina, ibilbidearen ondorio

Nazioarteko makina bat sari eman dizkiote azken urteetan Launari. Unax Unzaluk kontatu digunez, "fami-liak urte luzeetan egindako lanaren emaitza" da aitortza hori, ez azken urteetako aldaketarena bakarrik. Zilarrezko 10 domina eta urrezko bat jaso dituzte aurten, Bruselako mundu mailako lehiaketan eta Monakoko nazioarteko sariketan, besteak beste.

### Zaindutako lana

Unzaluren arabera, "ahalegin handia" egin zuten upategi berria eraikitzerakoan, kalitatearen aldeko apustu moduan. Horretarako, teknologia eta instalazio berriak ipini zituzten. Ekoizpen prozesurako erabilitako mahastiak, 47 hektarea hain zuzen, upategiaren zaintzapean daude. Lan honetarako ingeniari agronomo bat hartu zuten orain dela hiru urte.

Unzaluk dioenez, "mahastigintzan lan ona egiten ari gara, eta bodegako lana oso era kontrolatuan eta baldintza onetan egiten dugu". Ardoaren ontze prozesua, batez ere kupel berrietan oinarritzen da.



# IRITZIA >

## Gutunak

### Euskara plana dela eta

Pasa den astean "Durangoko ezker abertzalea" moduan sinatuta, udaleko talde mistoko zinegotziek Euskara Planaren inguruan komunikatua argitaratu zuten. Sarriegi entzun diegun mezu bera errepikatu zuten: guk aurreikusi bezala, euskara planak ez du funtzionatu eta horren erantzule udal-gobernua eta plana babestu zutenak dira. Alegia, denak; eurak eta PP izan ezik.

Egia esan, gu ere ez gara isiltzekoak. Pentsatzen dugu bakoitzari berea eman behar zaiola, eta harreman guztien oinarrian egon behar lukeen errespetutik zera adierazi nahi dugu:

Udaleko Euskara Plana dela-eta, arestian aipatu bezala, PP salbu, udaleko alderdi guztiak hipokritatzen jo dituzue. Noam Chomskyk azalduko lukeen bezala "Besteen gain jartzen ditugun baloreak gure lepo jartzeko ezintasuna". Guk ez dugu inor hipokritatzen joko, ez gara inor beste batek pentsatzen duena eta egiten duena bat ez datozela adierazteko. Hala ere, kontu batzuk argi azaldu behar dira.

2008an onartu zen udaleko Euskara Plana. Euskara Biziberritzeko Plana edota euskararen ordenantza bezala, guretzako tresna egokia izan daitekeena. Bere garaian ez gintuen guztiz ase; horren lekuko, onartu zen egunean Esti Zurikaraik osoko bilkuran esan zuena: "ez da guk amesten dugun plana, ez da gure hizkuntza eskubideak % 100ean bermatuko dituen plana... baina gure eskubideen alde pausu txikia izanda ere, zerbait da...". Alegia, urrats bat baino ez izanagatik babestu genuen, beste batzuk nahi adinako urratsa ez zelako abstenitu egin zineten moduan. Besterik da, ez dela behar bezala garatu eta ez dela garatzeko behar bezalako baliabiderik eskaini. Baina hori plana babestu zutenei eta gobernu ardurak dituztenei maila berean leporatzea ez zaigu zilegi iruditzen.

"Ezker abertzale" moduan sinatzen duzuenok, Aralarri leporatzen diozue, udalak euskara arloan duen erabilieraren erantzukizuna. Hots, 2008ko planaren alde bozkatu genuenez, eta behar den bezala garatu ez denez, 1982tik hona (euskararen erabilera normalizatzeko Legea onartu zeneko urtea) hizkun-

tza normalizazioan, udal barruan egondako garapen urriaren erantzukizuna Aralarrena ere bada. Zeuena ez, ordea; zuek "Durango euskalduntzeko lanean jarraituko duzue".

Guk dakigula, aipatutako legea onartu zenetik, Ezker Abertzalea ordezkaturik egon da/gara udaletxean. Beraz erantzukizun bat izango duzue zuek ere, komunikatuan aipatzen duzuen "espainolez funtzionatzen duen udal eredu bikainean", ezta?

7 urteko bizitza instituzionala duen alderdi batek (Aralarrek) erantzukizun osoa baldin badu, betidanik Durangoko udal politikan murgilduta egon zarenok ere erantzukizunaren zati bat behintzat izango duzue. Jakinik, bere garaian Euskal Herri-tarrok-ek (EH), udal gobernuan izateaz gainera, euskara batzordearen lehendakaritza ere izan zuela. Beraz, beharbada eredu espainol hori aldatzeko aukera Aralar sortu aurretik ere egon izan da.

Illo honi jarraituz 2000. urteko maiatzean, Euskara batzordean, EHk lehendakaritza izanik, euskara planaren bideragarritasun txostena EHren aldeko botoekin onartu zen. 2008 urtera arte, ordea, ez zen onartu; jakina, talde mistoko kideen absentsioarekin. Alde bozkatu gendelako bere garapen urriaren erantzule bagara, zuek ere plan honek izan duen atzerapenean erantzukizuna izango duzue, ala ez al da horrela? Esan gabe doa EH eta gaur egungo talde mistoa ez direla gauza bera; baina, adibidez, batzordearen lehendakaritzan zegoen pertsona zuen udal-taldearekin hainbat prentsaurrekotan agertu izan da. Denen aurka hasi beharrean, zergatik ez dituzue azalpenak etxean eskatzen?.

Bukatzeko, ez da gure asmoa elebakartasunaren defendatzaileen mesedetan elkarri mokoka aritzea. Pentsatzen dugu momentua dela liskarrak albo batera uzteko, eta gai honetan eta beste hainbat aferatan ados egon gintezkeenekin elkarrekin jarduteko.

Dani Maeztu eta Jon Artza, Durangoko Aralarren izenean

### Sei hankako mahaia



Sergio Murillo EAJ

### Dagoenean bonbon, ez dagoenean... ekin gogor!

Euskal esaera zaharrak dinoana aldatzen ausartu naz, atzo Kuruzesantu museoaren zabaltze ekitaldira joan eta gero. Berez, museoak badau bere garrantzia, baina are handiagoa da Durangok azken urteetan turismoaren inguruan izandako garapen izugarrian txertatzen badogu. Izan be, turismo bulegoak jasotako informazio eskari kopurua ia-ia bikoiztu egin da 2009an, 2008ko datuei alderatuta. 5.500 bisitari egin dabe gurean osterata... 2006an, barriz, ez ziran erdietara be helzten!

Aitzin begirada bat eginez gero, 2006an eta 2009an Durangok eukazan baliabide kultural eta naturalak bertsuak ziran. Beraz, zer aldatu da? Datu hotzen ostean dagoana, lana da, ekimena. Turismo arlotik, azken urteotan baliabide turistikoak antolatzeke, izendatzeko, kalean ikurrak jartzeko, gure bisitari potentzialen perfila definitzeko eta ezagutzera emoteko lana egin da. Ez da hori ahuntzaren gaurdiko estula, ez horixe! (Hara, beste atsoitz bat!).

Beraz, atzokoa, Kuruzesantu museo zabaltzea, ez da ekimen bakana, estrategia baten barruko urratsetariko bat baino. 2006an Durango bisitariarentzako erakargarri izan eitekeala pentsatu eta horri ekin geuntsan, udal gobernutik. Eta orain, krisiak gogorren jotzen dauan honetan, bisitarien gorakadak gure herriko dendarien, tabernarien eta alojamenduetako ugazaben kontu makalak apur bat gozotuko ditu.

Turismo arloan asko daukagu garatzeko gure eskualdean, baina egindako bideko ahalegina bere fruituak emoten hastea zorientzekoa da. Dagoenean bonbon, ez dagoenean... ekin gogor!

**Turismoan asko daukagu garatzeko. Egindako ahaleginak fruituak ematea zorientzekoa da**

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bidali behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
 diruz lagundutakoa



**anboto**  
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
 2010eko ekainaren 11 - 9. urtea - 377 zk.

#### Laguntzailea:



#### Honako herrietako udalak:

|         |         |          |
|---------|---------|----------|
| Abadiño | Elorrio | Mallabia |
| Atxondo | Garai   | Mañaria  |
| Berriz  | Iurreta | Otxandio |
| Durango | Izurtza | Zaldibar |

#### Zuzendaria: Jone Guenetxea.

#### Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

#### Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.


**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Aitor Duñabeitia.

**Argazkilaria:** Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



**Durango**  
**Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21**

Konfiantzaren balioa **piso** 

**zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak**

**MATIENA** Erref. 002-1105  
 ▶125.611€ (20,9 milioi)



2 logela eta trastelekua. EZIN EGOKIAGOIA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO! BIKOTEENDAKO EGOKIA!

**ZALDIBAR** Erref. 002-493  
 ▶155.662€ (25,9 milioi)



3 logela, sukalde-jantokia balkoiarekin. 20 m<sup>2</sup>-ko egongela, kanpora ematen duena. Garajea.

**KIRIKIÑO** Erref. 002-895  
 ▶160.000€ (26,6 milioi)



3 logela. Orientazio ona. SUBENTZIO-NATUTAKO HIPOTEKA. 337/hileko (lehen 3 urteetan). KONTSULTATU.

**DURANGO** Erref. 002-1090  
 ▶165.410€ (27,5 milioi)



AUKERA! Erdialdean kokatuta dagoen apartamentua. Orientazio ona. Eguzkitsua. Guztiz berriztatua. Logela bikoitza, komuna, egongela-jangela handia balkoiarekin. Guztiz jantzia. BIKOTEENDAKO EGOKIA!

**ELORRIO** Eraikuntza berria



2 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 177.000 eurotik hasita. 3 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 277.500 eurotik hasita. 4 logelako etxebizitzak trastelekuarekin 283.000 eurotik hasita. Etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeratu. PREZIOAK PROMOTORAK ZUZENEAN EMANDA!

**MATIENA** Erref. 002-1093  
 ▶179.702€ (29,8 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztatua dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. EZIN EGOKIAGOIA LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

**BERRIZ** Erref. 002-1101  
 ▶179.702€ (29,9 milioi)



Guztiz berriztatua dagoen etxebizitza. Orientazio ona. Eguzkitsua. 3 logela, egongela handia eta sukaldea balkoiarekin. Garaje itxia aukeran.

**DURANGO** Erref. 002-900  
 ▶195.329€ (32,5 milioi)



Berriztatua etxebizitza. Erdialdean kokatua. Fatxada eta teilatua konponduta. 2 logela. Kristal dobleko PVCko leihoak. Bizitzaren sartzeko prest!

**ERMODO** Erref. 002-1106  
 ▶210.354€ (35 milioi)



3 logela. Sukalde handia, egongela eta komuna. Berogailua eta kristal bikoitzeko leihoak. Guztiz jantzia. Igogailuarekin.

**DURANGO** Erref. 002-1048  
 ▶225.379€ (37,5 milioi)



Pisu altua igogailu eta ikuspegiekin. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. BISITATU EZAZU KONPROMISO BARIKI!

**BERRIZ** Erref. 002-1001  
 ▶236.197€ (39,3 milioi)



8 urte dituen etxebizitza. Bi logela bikoitz eta egongela handia balkoiarekin. Garajea eta trastelekua. ZATOZ IKUSTERA!

**ARLOZABAL** Erref. 002-1102  
 ▶239.803€ (39,9 milioi)



10 urte dituen etxebizitza. 2 logela bikoitz eta bi komun. Terraza. Garajea eta ganbara. BERRIA DIRUDI! PISO ON-EN BAKARRIKI! EZ GALDU AUKERA HAU!

**SASIKOIA** Erref. 002-882  
 ▶256.000€ (42,6 milioi)



15 urte dituen etxebizitza. Orientazio ona. 2 logela bikoitz eta egongela handia. Erdi berriztatua. ETORRI ZURE ETXE BERRIA IZAN DAITEKEENA IKUSTERA!

**DURANGO** Erref. 002-831  
 ▶270.455€ (45 milioi)



Landako inguruan kokatua. 3 logela, komuna eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!

**ASKATASUN ETORB.** Erref. 002-552  
 ▶280.071€ (46,6 milioi)



6 urte dituen etxebizitza. 2 logela bikoitz. egongela, sukaldea eskegitokiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. BERRIA DIRUDI!

**SAN INAZIO** Erref. 002-949  
 ▶288.486€ (48 milioi)



3 logela bikoitz eta 2 komun. Orientazio ona. Garajea eta trastelekua. Erdi berriztatua. EZ GALDU AUKERA HAU!

**PLATERUEN PLAZA** Erref. 002-719  
 ▶294.495€ (49 milioi)



12 urte dituen etxebizitza. 100 m<sup>2</sup>, 4 logela, 3 komun eta 22m2ko egongela. Garajea eta trastelekua. EZ GALDU AUKERA HAU!

**MEABE** Erref. 002-1039  
 ▶318.536€ (53 milioi)



11 urte dituen etxebizitza. 108 m<sup>2</sup>. 3 logela doble eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garaje itxia. ETORRI IKUSTERA!

**DURANGO** Erref. 002-1095  
 ▶339.571€ (56,5 milioi)



Pisu altua igogailuarekin. Eguzkitsua. Orientazio ona. 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garajea. ETORRI IKUSTERA, GUSTATUKO ZAIZU!

**MURUETA-TORRE** Erref. 002-1096  
 ▶385.000€ (64 milioi)



6 urte dituen pisu altua igogailuarekin. Orientazio ona. Eguzkitsua. 3 logela bikoitzak, 2 komun, egongela handia ikuspegi onekin eta balkoia eta eskegitokia duen sukaldea. ETORRI IKUSTEN ETA EGINGO DUGU BERBA!



Konfiantzaren balioa

**piso**   
 .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea





# AGENDA >



Ekainaren 12an, 16:00etan  
**AMAIA ZUBIRIA**

Euskal musikaren ahots puru eta erakargarria. Ondo uztartzen ditu abestiaren sentimentua eta abesteko plazerra eta hori abesten duen kantuetan igartzen da. Betiko abestiak, baina gaur egungo ukituagaz eta freskotasunagaz. Munduko arrozen jaialdian Amaia Zubiriaren kantu eta esentzia zuzenean entzuteko aukera.

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.

## ANTZERKIA

### DURANGO

- » **'Cabaret panoli'** barre eragingo digun antzezlanak ekainaren 12an 22:30ean San Agustinen.
- » **'Pinotxo'** txotxongilo ikuskizuna ekainaren 13an 18:00etan San Agustinen.

### ERMUA

- » **'Kale ikuskizuna'** Payasos en rebeldía (México rebelde jaialdia) ekainaren 11n 18:30ean Orbe Kardenalaren plazan.

## BERBALDIA

### DURANGO

- » **Ekainaren 17ra bitartean 'Arkeologia eta Historia' izeneko hitzaldi zikloa** burutuko da Etxezarreta Jauregian (Durangoko Museoa). **Ekainaren 17an**, 19:00etan: 'Tres mil años de historia de una aldea'. Juan Antonio Quirós Castillo EHUko irakaslearen eskutik.

### ERMUA

- » **Gastronomiari buruzko jardunaldiak**: hainbat ekitaldi antolatu dira ekainaren 14tik 19ra. Antolatzailea: Lobiano gastronomi elkarte.

## BESTEAK

### BERRIZ

- » **II. Martxa Zikloturista** ekainaren 13an 09:00etan Berrizko udaletxetik irtenda.
- » **Erreka garbitzea**. Erreka garbitzeko eguna, ekainaren 12a izango da. Horretarako kiroldegian eman beharko da izena.

### DURANGO

- » Ibaizabalen X. urteurrena ospatzeko ekitaldiaren barruan. **Ibaizabal Extrem** hainbat kategoriatako oztupo lasterketa (erreka, lastoak, gurpilak, kableak...) ekainaren 12an 11:00etan Ibaizabal Ikastolako tabernan. Sariak egongo dira. Izen ematea: 94 621 6021 edo 667 786 384 telefonoetan.

### IURRETA

- » **Iurreta txirindulari elkarteak antolatutako ibilbidea** ekainaren 12 eta 13an 08:00etan Iurretan.
- » **XXIII. Emakumeen Bira** hirugarren etapa ekainaren 13an 1. sektorea 10:00etan Elorrio-Elgeta. 2. sektorea 16:30ean Iurreta-Zuia.

## DANTZA

### DURANGO

- » **'Dantzaldi ibiltaria'** ekainaren 12an 14:00etan Landako Gunean.
- » **II. muestra de ballet infantil** ekainaren 16an eta 17an 18:30ean San Agustinen.

### ERMUA

- » **'Euskal jaia'** Patxi Perezen taldea ekainaren 12an 18:30ean Orbe Kardenalaren plazan. **Ekainaren 13an** 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ermuko eta Euskal Herriko dantza taldeen erakustaldia.

## DEIAK

### IURRETA

- » **Udaleku Ibiltaria** Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta

**Udaleku Finkoak** Ozaetan, uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkartea.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

## ERAKUSKETA

### BERRIZ

- » **'Naturari'** Patxi Badiola argazkilaria Euskal Herriko kostaldean jasotako irudiak ikusgai, ekainaren 13ra arte, Kultur Etxean.

### ERMUA

- » **'Margoak'** Ermuko Udal Margo Eskolako ikasleek egindako lanen erakusketa ekainaren 14tik 27ra Lobiano Kultur Gunean.

## IKASTAROAK

### DURANGALDEA

- » **AEK-k dagoeneko zabalik du matrikula epea udan euskara ikasi nahi duen ororentzat. Euskalduntzea eta EGAKo azterketak prestatzeko 100 orduko ikastaro trinkoak. Izen ematea: ekainaren 22ra arte. Durangoko Abarrak eta Elorrioko Abizari euskaltegietan: euskalduntzeak ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Hirugarren maila eta EGA prestatzea ekainaren 21etik uztailaren 16ra. Berrizko AEKn uztailaren 5etik uztailaren 26ra. AEK Barneteqi ibiltaria 2010 Iurretan uztailaren 3tik 18ra Izen emateko azken eguna ekainaren 24ean. Beste aukera uztailaren 17tik 31ra. Izen emateko azken eguna: uztailaren 8a. Zornotzako AEK euskaltegia ekainaren 21etik uztailaren 16ra izango da.**

### DURANGO

- » **Udako kirol ikastaroak** 3-5 urte, 6-14 eta nagusientzat zuzendutakoak. Hainbat ekintza aukeran: Spin Bike, Aquabike, Aquagym, circuito express, tenis eta padel. Ekainaren 15era arte eskaera betetzeko epea. Landakoko igerilekuetan. Zozketa ekainaren 18an egingo dute. Informazio gehiago lortzeko: www.durangokirolak.net webean edo 94 603 00 31 telefonoan.

## JAIK

### ABADIÑO

- » **Urkiolako San Antonio**. Ekainaren 12an Errogatiba. Ekainaren 13an San Antonio eguna. Mezak: 09:00 - 10:00-11:00-12:00-13:00 eta 18:00etan. Meza nagusia 12:00etan. Feria Abadiñoako Udalak eta Ganaderoen elkarteak antolatuta. Bertsolariak, trikitilariak...

### DURANGO

- » **Euskal Astearen baitan ekainaren 13a arte Pintura Erakusketa** Ezkurdi udal aretoan. **Ekainaren 12an IX. Euskal Astea zesta punta finalak** 19:00etan Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua.
- » **Munduko Arrozak ekainaren 11n**. 20:00etan Haitiren **aldeko kontzertua** Durangoko Plateruena kafe antzokian. **Ekainaren 12an** Ezkurdi plazan 12:00etan **Munduko Arrozak ekitaldiaren aurkezpena**. 12:15ean **umeentzako tailerrak**. 12:30ean **Musika eskolaren kontzertua**. 13:00etan **Dakamarraksia Tropeten eta danborren banda**. 14:30etatik 16:00etara munduko arrozak **bazkaria**. 16:00etan **umeentzako ipuin kontaketa**. 16:00etatik 17:00etara **Amaia Zubiriagaz kantuan**.

17:00etatik 19:00etara **munduko erritmoak**. 19:00etan **Txokolatada**-rekin jaiaren amaiera.

- » **Euskal Herriko 1. Long Skate jaialdia** ekainaren 12an 16:30ean hasita Zuhatzola parkean (hilerri ondoan)

### ERMUA

- » **Euskal Jaia, ekainaren 12an**, Patxi Perezekin **dantzaldi bizia** Herriko Plazan 18:30ean. **Ekainaren 13an dantza erakustaldia**: Txindurri dantza eta txistu taldeak antolatutako ikastaroetan parte hartu dutenen dantza erakustaldia. 10:00etatik 10:30era **taldeen harrera** San Pelaion. 10:30etik 11:00etara **hamaketakoa**. 11:00etatik 12:30era **kalejira** auzoetan zehar. 12:30etik 14:00etara **dantza erakustaldia** eta 17:00etan **umeen alardea** plazan.

### MALLABIA

- » **'UEMA'** eguna ekainaren 12an. Iñaki Arregiri omenaldia. 12:00etan Frontoian Xabier Mendigureni aitortza bere ibilbideagatik. Ostean **mahai ingurua**, UEMA: hasierako bultzada eta lehen erakundetzea. 14:30ean **bazkaria**, txartelak salgai Izurtza, Atxondo, Otxandio eta Mallabiko udaletxeetan edo UEMAko bulegoetara deituta: Oartzun (943 26 03 72), Azpeitia (943 81 66 99), Aulesti (94 627 91 95). Bazkalostean, **kantu saioa**. 16:00etan **umeentzako ipuin kontalaria**, Lur Korta. Mallaberreneko plazan eta Elizoste kalean: 11:30-13:30 eta 16:30-18:30, **ume eta gaztetxoentzako jokoak** (puzgarriak, tailerrak, quadak...) Herriko parkean: 12:00etan, herrien arteko **Xiba jokoak**. Plazan: 18:00etan **'Erlaxi'** taldearekin dantzaldia. 23:00etan, **'Damu dot'** taldeak disko berria aurkeztuko du.



anboto, durangaldeko astekaria



# Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali



**LEHIAKETA**

**ELORRIO**

» **Ferixa Nausiko kartel lehiaketa 2010** martxan dago, lanak aurkezteko epea ekainaren 15ean amaitzen da, 14:00etan.

**ERMUA**

» **Postal lehiaketa**, oporretako postala bidali Euskal Birusa elkartera (247 postakutxa 48.260 Ermua) irailaren 14a baino lehenago eta saria lortzeko aukera izango duzu.

» **Aire zabaleko margo lehiaketa** ekainaren 13an 10:00etan hasita Ermuko kaleetan.

**IURRETA**

» **Aita San Migel jaietako kartel lehiaketan parte hartu** eta lanak aurkezteko azken eguna: ekainaren 18a izango da, Kultur Etxean.

**LITERATURA**

**IURRETA**

» **Irakurketa kluba** ekainaren 15ean 19:00etan 'Sisifo enamorado' liburutegian.

» **Helduen irakurketa kluba** ekainaren 16an 19:00etan 'Ilania' liburutegian.

**MUSIKA**

**BERRIZ**

» **Anido gitarra laukotea**, ekainaren 11n, 22:00etan, udaletxeko lorategian.



**DURANGO**

» **Rock Izar eskolaren jaialdia** ekainaren 17an 21:00etan Plateruenean.

» **Kurtso amaierako audizioa** ekainaren 15 eta 16an 18:00etan eta 19:00etan musika eskolako aretoan.

» **Musika modernoko taldeak** ekainaren 17an 18:15ean musika eskolako parkean.

**ERMUA**

» **'Abesbatzen kontzertua'** ekainaren 12an 20:00etan Santiago Elizan: Pispillu abesbatza (Ermua) + Coral

Polifonica "Marinyen" (Tavernes de la Valdigna- Valencia).

» **'Aste musikala'** ekainaren 14tik 16ra Alboka musika eskolako talde, bikote eta bakarlariak ikasturte bukaerako musika emanaldia eskainiko dute Lobiano Kultur Gunean 19:30ean.

» **'Alboka eguna'** ekainaren 18an. Kontzertua Alboka musika eskolaren eskutik 22:00etan Orbe Kardenalaren plazan.



**ZINEKLUBA**

**DURANGO**

» **'An education'**, ekainaren 17an, 20:30ean, Zugaza zinema aretoan ikusgai.

**ERMUA**

» **'El cónsul de Sodoma'** ekainaren 17an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean.



Ekainaren 13an, 18:00etan

**PINOTXO**

Bihar txotxongilo konpainiak dakarkigun txotxongiloen ikuskizuna da. Egurrezko panpin ezagunaren abenturak kontatzeko eszenografiak sortzen dituzte; arreta handiz eta estetika atseginez, sortu ere. Bihar konpainia aitzindaria da; 30 urteko ibilbidean milaka emanaldi eskaini ditu makina bat herrialdetan. Urteurrena ospatzeko Pinotxo izango dute bidelagun.

**ZINEMA**

**DURANGO**

Zugaza

**La última canción**

Zuzendaria: Julie Anne Robinson. barikua 11: 19:00/22:00 zapatua 12: 19:30/ 22:30 domeka 13: 19:30/22:30 astelehena 14: 19:00/22:00 martitzena 15: 20:00



**Umeentzako zinea**

**Garfield y su pandilla 3D**

Zuzendaria: Mark A-Z Dippé zapatua 12: 17:00 domeka 13: 17:00



**Munduko Kopa**

**Sudafrika- mexiko 3D Inagurazio partidua**

barikua 11: 16:00

**ELORRIO**

Arriola antzokia

**Fish Tank**

Zuzendaria: Andrea Arnold zapatua 12: 22:30 domeka 13: 20:00 astelehena 14: 20:00



**BOTIKAK**

**Barikua, 11**  
09:00-09:00  
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)  
**Zapatua, 12**  
09:00-09:00  
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)  
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
• De Diego/ Sagastizabal/ Balenciaga/ SanRoma / Unamunzaga/ Gaztelumendi/ Campillo  
• Irigoien\*  
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)\*  
09:00-22:00  
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)  
**Domeka, 13**  
09:00-09:00  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)  
**Astelehena, 14**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)  
**Martitzena, 15**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24- Durango)  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)  
**Eguaztena, 16**  
09:00-09:00  
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)  
09:00-22:00  
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)  
**Eguena, 17**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**SOS Deiak.....112**  
**DYA .....94 620 28 00**  
**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**  
**Osakidetza .....94 600 72 00**  
**Ertzaintza .....94 466 93 00**  
**Suhiltzaileak .....112**  
**GARRAIOAK**  
Euskotren .....902 54 32 10  
Durango .....94 681 02 32  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466  
**TAXIAK**  
Abadiño .....946 814 470  
Matiena .....606 459 988  
Durango Geltokia.....946 811 001  
Goco Tour .....946 202 860  
Tele Taxi .....944 102 121  
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026  
Elorrio Geltokia .....946 820 040  
J.L. Uriarte .....670 402 002  
I. Estebez .....670 678 273  
M Galeano.....946 582 854  
lurreta .....946 201 565  
Taxi auzunea .....688 618 690

**UDALAK**

Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00  
Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
lurreta ..... 94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio ..... 945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16

**UDALTZAINGOA**

Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
lurreta .....94 620 08 88

**BESTELAKOAK**

Arriola .....94 658 31 92  
San Agustin .....94 603 00 21  
Zornotza Aretoa .....94 630 01 68  
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47  
Errota KE .....94 466 94 16  
Gorabide .....94 681 24 35  
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51  
Nekazal bulegoa ....94 681 15 20  
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86  
Butanoa (UME).....94 681 08 77  
Araztegia .....94 620 28 00  
Foru Ogasuna.....94 681 07 42  
INEM Durango .....94 681 12 96  
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58  
Epaitegiak.....94 603 00 51

**KIROLDEGIAK**

Igerilekua  
Astola .....94 620 29 29  
Igerilekua  
Atxondo .....94 623 14 38  
Berriz .....94 682 43 74  
Durango  
(Landako).....94 621 51 30  
Durango  
(Tabira) .....94 621 51 50  
Elorrio .....94 682 10 27  
Zaldibar .....94 682 73 74

**EGURALDIA**

**20° BARIKUA** ☁  
Arratsaldean zaparradak txikiak botako ditu. Haizearen norabidea aldatuko da. Goizean hego-mendebaldetik joko du eta gero mendebaldetik. Temperaturak ez dira asko aldatuko.

**18° ZAPATUA** ☁  
Larunbatean ere, aldaketa gutxi. Haizearen norabidea aldatu egingo da eta ipar-mendebaldetik joko du eguerditik aurrera. Gainerakoan, ezegonkor jarraituko du eta zaparradak botako ditzake.

**18° DOMEKA** ☁

**17° ASTELEHENA** ☁

**19° MARTITZENA** ☁





### **Narru Jatetxea**

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak.  
Eguneko menua.  
Menu bereziak.  
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



### **Betixu Jatetxea**

Iturburu 9, Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.  
Razioak terrazan.



### **Pedro Juan**

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




### **Plateruena kafe antzokia**

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.

# Jatetxe gida



### **Ganeko Etxe**

Elizondo z/g, Berriz  
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.  
Arrain errea kartan.  
Eguneko menua: 8 euro



### **Juliantxu Jatetxea**

Iturriza 2, Berriz  
Tel.: 94 682 40 77

Karta.  
Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



### **Tenplete Jatetxea**

Hotel Kurutzia, Durango  
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.  
Karta.  
Eguneko menua.  
Menu berezia.

## Hemen agertu gura badozu,

# DEITU

## 94 621 79 02



# KIROLAK >



Argazkia: Juanra de la Cruz

## Europian ere Vos garaile

**M**arianne Vos gazteak irabazi zuen atzo Emakumeen Birako lehenengo etapa, lurretan hasi eta amaitu zena. Tropela batera iritsi zen helmugara eta munduko txapelketa izan zen indartsuena. Euriak eta hai-zeak ez zuen herbeherear gaztearen errendimenduan eragin eta gaur egun emakumeen txirrindularitzan onenen artean dagoela erakutsi zuen beste behin. Ondorioz, bera da Emakumeen Birako lehenengo liderra.

Vos-en atzetik Giorgia Bronzini (Gauss RDZ Ormu) eta Elizabeth Armitstead (Cervelo Test Team) helmugaratu ziren.

Lasterketa gogorra izan zen. Euriak erabat baldintzatu zuen txirrindularien jarduna eta bizpahiru eroriko ere egon ziren. Dena dela, Elorrioko San Agus-

tingo harlauzatik ere ibili zirela kontuan hartuta, okerragoa izan zitekeen. Lasterketaren gogortasuna ederto islatu zuten txirrindularien aurpegiek helmugan; dena lokaztuta eta erabat nekatu trazagaz amaitu zuten lasterketa. Bizkaia-Durango taldeko Dorleta Zorrilla izan zen lehenengo euskalduna 43. postuan.

### Gaur Lekeition zehar

Gaur Lekeition hasi eta amaitu da 112 kilometro dituen lasterketa. Lekoitza gaina —bigarren mailakoa— birritan pasatu beharko dute; oro har, ibilbide gorabeheratsua da, errekuaratzeko tarterik uzten ez duena.

Zapatuan etapa bi izango dira. Goizeko sektorean Elorriotik Elgetarako ia sei kilometroko

kronoigoera izango dute; orduan hasiko da argitzen Emakumeen Bira irabazteko benetako fabritoa nortzuk diren. Arratsaldean, lurretan irten eta Murgian helmugaratuko dira. Azkenik, domekan azken urteetan ohi duten moduan, Urduña inguruan ibiliko dira txirrindulariak. Urduña gaina eta jaitsiera bihurtuak erabakiorrak izan daitezke. (Etapa guztietako kronika eta sailkapenak egunero [www.anboto.org-n](http://www.anboto.org-n)) ■ J.D.

Zapatu goizean Elorriotik Elgetara igoko dira erlojupekoan

### 24 Biharko Izarrak-eko finalak

Mallabiko pilota txapelketa entzutetsuko finalak jokatu dituzte gaur 20:00etatik aurrera. Elezkanok eta Merinok Mendizabal eta Landabururen kontra jokatu dute.

### 25 Wolfgang Heindeli elkarrizketa

Alemaniarra munduko txapelketa geratu zen jiu-jitsuan orain bost urte. Joan zen asteburuan Maristak ikastetxean egon zen ikastaro bat eskaintzen, Durangoko Judo Klubaren bitartez.



# Lau izarrik distiratsuenak gaurko finalean lehiatuko dira

Biharko Izarrak txapelketako finalak 20:00etan hasiko dira



Mendizabalek eta Merinok 22-11 menderatu zituzten Azpiri eta Linzoain finalerdietan. Kepa Aginako

**P**ilota profesionalagaz amesten duten Euskal Herriko 24 pilotari gazte lehian ibili dira Mallabian, Biharko Izarrak txapelketan. Hiru hilabete, 18 jardunaldi eta 36 partiduren galbaha igarota, erabakita dago gaur 20:00etan txapelaren bila jardungo duten izarrik distiratsuenen zerrenda.

Biharko Izarrak txapelketaren joko sistema bereziaren ondorioz, binakako finala jokatuiko duten bikote biek lehenengoz jokatuiko dute elkarrekin; beste era batera esanda, pilotari bakoitzak finalerdietan bikotekide izan zuenaren kontra jokatuiko du. Korapiloa askatzeko argitu ditzagun lau protagonistak: Elezkanok eta Merinok Mendizabal eta Landabururen kontra jokatuiko dute.

Adituek Elezkanok eta Merinok jotzen dituzte favorito moduan. Merino errioxarrak

## Elezkanok eta Merinok Mendizabalen eta Landabururen kontra jokatuiko dute

dagoeneko kontratua sinatu du Aspegaz eta Mallabiko txapelketa amaitu eta hurrengo asteburuan debutatzekoa da profesionaletan. Pilotari konpletua da, kolpea ere baduena. Elezkanok bizi mugitzen da aurreran, baina baliteke jokoa atzean kargatzeko estrategia erabiltzea.

Horrela jokatzeko erabakitzen badute, Landaburuk lan asko izango du. Dena dela, Rikardo Altubek, txapelketako antolatzaileetako batek, gauzak ez ditu hain argi ikusten: "Landaburu sasoi puntu itzelean

dago. Txapelketa ikaragarria osatu du eta berea emanez gero, partidua estutu dezakete" Mendizabalek haizea alde zuela jokatu zuen finalerdietan, Merinok nagusitasunez agindu zuelako. Gaur bestelako lana egitea egokituko zaio. Ahal duen neurrian atzelariari laguntzen eta aukera duen aldiro aurrean asmatzen saiatu beharko du.

Partidu honen aurretik lau t'erdiko finala jokatuiko dute. Urionaetxebarria eta Jaka egongo dira aurrez aurre Mallabiko pilotalekuan. ■ J.D.

## Aurretik lau t'erdiko finala jokatuiko dute: Urionaetxebarria eta Jakaren kontra

## Long-Skate jaialdia antolatu du bihar Zutundu surf eskolak

Zutundu SUP eta Surf eskolak Euskal Herriko 1. Long Skate Jaialdia antolatu du bihar Durangon, Zuhatzola parkean (hilerri ondoan). Long skate txapelketa egingo dute, slalom eta free-style modalitatean eta irabazleentzat sariak egingo dira.

Horrez gainera surfaren inguruko materialen zozketa egingo dute. Jaialdian DJak eta kale animazioa ere egongo dira. Barbakoa bat ere antolatu dute. Izen-ematea bost euro da (info@zutundu.com-en edo Acustica Sport-en). ■ J.D.

## Ibaizabalek oztopo lasterketa antolatu du

Ikastola inguruan antolatutako ibilbidean ibiliko dira 6-17 urte arteko gaztetxoak bihar

Ibaizabal Ikastolak oztopo lasterketa antolatu du biharko 6tik 17 urtera arteko gaztetxoentzako. Lasterketa 11:00etan hasiko da eta izena emateko ordua, berriz, 10:00etan. Ikastolakoentzako zein handik kanpoko gazteentzako irekita dago lasterketa.

## Mañari errekatik ere ibili beharko dute parte hartzaile gazteek

Adinaren arabera hiru multzotan banatuko dituzte parte hartzaileak. 6-10 urte bitartekoek zirkuituari itzuli bat emango diote (600 metro); 11-16 urte artekoek kilometro biko ibilbidea osatu beharko dute eta 17 urtetik gorakoek lau kilometrokoa. Denentzako egongo dira sariak.

Oztopo lasterketan Mañaria ibaitik, kableen azpitik eta lasto fardoan gainetik eta gurpilen artetik ibili beharko dute parte hartzaileak. ■ J.D.

Unai Zamalloa

• Saskibaloi entrenatzailea



## Hurrengo urteari begira

Gure eskualdeko talde guzti-guztiak, hurrengo denboraldia prestatzen eta planifikatzen ari dira buru-belarri. Orain hartzen diren erabakiak oso garrantzitsuak eta erabakiorrak dira hurrengo urtean talde guztiek izango dituzten helburuak lortu ahal izateko. Beraz, orain egiten den lanak zuzenean eragingo du hurrengo denboraldian.

Baina, azkeneko urteotan, eskualdeko klub guztiek arazo nagusi eta komuna daukate: planifikazioa eta talde horiek guztiak aurrera ateratzeko beharrezkoak diren giza baliabideak. Entrenatzaileak. Arlo teknikoan, klubak egituratu, koordinatu eta gidatu dituzten teknikoak.

Lan hori egiteko, orduak, gogoia, ilusioa eta jakinduria behar dira. Eta gaur egun astia da falta zaiguna. Denborarekin lanak aurreikusi eta planifikatu egiten dira. Gogoia eta ilusioa sortzen dira denborarekin helburuak, lanak eta ideiak transmititzen badira. Klubeko partaide guztiak sentitzen dira proiektuaren barnean. Eta horrela, jakinduria zabaltzeko eta transmititzeko aukera gehiago daude. Eta modu horretara, azken batean, gure jokalarien hobekuntzan pausuak ematen ari gara.

Baina hori guztia ez dugu egiten; orain, klubak helburu nagusia, prest dagoen edozeinekin, nahiz eta saskibaloiaz ezer gutxi jakin, hutsuneak betetzea delako. Eta zorionekoak arrakasta lortzen dutenak! Beraz, zaindu eta landu ditzagun entrenatzaileak, ezinbestekoak direlako azaldu ditugun helburu horiek aurrera eraman eta gauzatzeko.

## Kadeteen txapelketako saskibaloia finalak etzi

Txapelketaren antolatzaileak gustura daude lehiaketak orain arte izan duen harrerarekin

Kadete mutilek martitzenean ekin zioten Espainiako Klub arteko XII. Txapelketari Durangoko Landako kiroldegian eta domekan jokatuiko dituzte finalak. Estatuko kadeteetako talderik onenak ari dira jokatzeko eta antolatzaileak gustura daude

izaten ari den harreragaz. Atzo amaitu ziren sailkatze faseak eta gaur final laurdenak jokatuiko dituzte. Dagoeneko sailkatuta daude Bartzelona, Real Madril, Cai Zaragoza, Malagako Unicaia, Valentzia eta Juventut.

Gaurko galtzaileak bihar bosgarrenetik zortzigarrenera arteko postuak lortzeko lehiatuiko dira. Lau talde irabazleek finalerdia 18:00etan hasiko dira. Finala domekan jokatuiko dute, eguerdiko 12:00etatik aurrera. ■ J.D.

Domekan 12:00etan jokatuiko dute finala Landako kiroldegian



Bihar, 18:00etan finalerdia jokatuiko dituzte. Kepa Aginako

Adituarentxokoa





## “Neu naiz neure buruarentzako aurkitu dudan maisurik zorrotzena”

Wolfgang Heindel (29 urte, Alemania) jiu-jitsuko munduko txapeldua izan zen 2004an. Durangoko Judo Taldearen eskutik, Maristak ikastetxean egon zen joan zen asteburuan ikastaro bat eskaintzen. Gaztetxoek ederto pasatu zuten beragaz.

### Noiz hasi zinen arte martzialak praktikatzeko?

Lodi samar nengoenez, gurasoak niretzako moduko kirol baten bila ibili ziren eta judoa aukeratu zuten. Sei urte nituen orduan. Gaztetan ez nintzen oso lehiakorra eta 11 urtera arte ez nuen borrokaldirik irabazi. Maisuak ere ez ziren oso onak, egia esanda. Dena dela, lagunartean oso ondo pasatzen nuen.

### Gero jiu-jitsua ezagutu zenuen.

Bai. Bizi nintzen herrian jiu-jitsu kluba bazegoen. Entrenatzailea oso ona zen, asko erakusten zigun, eta borrokaldiak irabazteko aukera geroago eta gehiago ikusten nituen hantxe jarraitu nuen. Nire lehen postu aipagarria eskolarteko txapelketa bateko bigarren postua izan zen. Irabaztearen sentsazioa berria nuen eta gustatu zitzaidan.

### Orduan zaletu zinen benetan arte martzialak?

Orduan eta 1988ko Seulgo Joko Olinpikoetan. Zortzi urte nituen eta gogoratzen ditudan lehenengo joko olinpikoak dira. Hainbat borrokaldi ikusi nituen, bakoitza bere nazioko banderagaz, bakoitza bere herrialdea ordezkatzeko eta liluratu egin ninduten. Oroitzapen horiek oso presente ditut.

### 2004an Munduko Txapelketa irabazi zenuen Madrilen jiu-jitsuan. Zer oroitzapen dituzu?

Amets eder baten moduan gogoratzen dut. 14 urte nituenetik txapeldua izatea zen nire ilusioa eta itxaropena, beraz

errealitate bihurtu zenean ezin nuen sinistu munduko txapeldua nintzenik.

### Espero zenuen hain goian ibiltzea?

2002an Uruguayn izandako Munduko Kopan bigarren geratu nintzen, beraz banekien lortu nezakeela. Nire aukera huraxe izan zitekeela ikusten nuen.

### Irabazteko presiorik sentitu zenuen?

Bai, baina nire buruagazko presioa bakarrik. Oso exigentea naiz neure buruagaz. Ni neu naiz neuretzako inon aurkitu dezakidan maisurik zorrotzena.

### Arte martzialekin duzun hartumana tatametik harago doa. DVD eta liburu didaktikoak ere kaleratu dituzu.

Munduko txapeldua izateak erantzukizun handia eskatzen du. Egunerok entrenatu beharra dago, batzuetan egunean birri-

“Gaztetxoek arerioa errespetatu eta zaintzen ikasten dute lehenengo”

tan, eta denboraldia oso gogorra izaten da. Munduko txapeldua izateak ahal duzun goren heldu zarela esan nahi du; beraz, geratzen den bide bakarra beheranzkoa da. Horregatik, lehia apur bat baztertu eta arte martzialak beste ikuspegi batekin lantzea erabaki nuen; alderdi didaktikotik, hain zuzen.

### Munduko herrialde askotan tokian tokiko arte martzialak probatu eta aztertu dituzu.

Tailandian, Brasilen... Herrialde asko bisitatu ditut. Ez nuke asmatuko esaten zein herrialde-tako jiu-jitsua den onena. Asia

arte martzialean erreferente bada, kantitatea dago tartean, bertan jende asko erakartzen duen kirola delako. Baina Frantzia lako herrialdeak ere ezin ditugu ahaztu; futbolaren atzetik bigarren kirola da Frantzian.

### Durangon gaztetxoekin ibili zara. Judo eta jiu-jitsua lako arteek gaztetxoek heziketan lagundu dezaketela uste duzu?

Duda barik. Borrokaldi baterako gaztetxoek lehenengo ikasten dutena aurrean duten arerioa errespetatzea da. Errespetatu ez ezik, zaindu ere egin behar dute. Balio horiek onak direla uste dut.

### Lehia ofizialak baztertuta dituzu?

Alemanian talde bateko kidea naiz eta eurengatik jarraitzen dut. Lehen nigatik borrokatzen nuen. Orain, ordea, taldeari zor diodala sentitzen dudalako jarraitzen dut; eurengatik erantzukizuna sentitzen dut. ■ J.D.



## Domekan Zigor Etxezarragaren omenezko martxa bizikletan

Berriz Bizikletari Elkartek Zigor Etxezarragaren omenezko martxa zikloturista antolatu du domekarako. 09:00etan irtengo dute Berrizko udal-etxearen paretik.

Martxak 120 kilometro ditu. Berriztik Traña-Matienara jaitsiko dira eta lurreta atzean utzita Muniketa igoko dute. Urrutxutik aurrera Gernikara helduko dira martxan parte hartzen dutenak. Gernikatik kostaldera abiatuko dira; Laga, Laida, Natxitu eta Eatik itsaso zabalaren ondotik ibiliko dira. Lekeitio eta Ondarroa atzean utzita, berriro barrurantz egingo dute Markinatik.

Martxa Bizkaiko kostaldetik ere ibiliko da

Ondoren, Gipuzkoan sartuko dira. Eibartik bueltan, Ermuan sartu eta Areitio gaina eginda Berrizera itzuliko dira, Iturritza kalean helmugaratuz.

Lekeitio eta Eibarren anoa gunek ipiniko dituzte. ■ J.D.

## Nazioarteko Quad Opena asteburuan Traña-Matienan

lazio lehenengo aldiko arrakasta berdintzeko asmoz, Nazioarteko II. Quad Opena antolatu dute asteburuan Traña-Matienan, CIE-Inyektamentalen dagoen inguruko lur zatian.

Bihar goizean, 10:00etatik 14:00etara, quad trial lehiaketako kanporaketak jokatu dituzte. Irabazleak 16:00etatik 20:00etara erabakiko dira. Hainbat modalitatetan ibiliko dira quad gidariak. Trial modalitatean trebetasuna da dohai nagusia; quadcrossean, aldiz, abiadurak ziurtatzen du ikuskizuna.

Domekan Espainiako quazaleen topaketa egingo dute Abadiñon eta Durangaldean zehar ibiliko dira. 200 bat quadzale batzea espero dute.

Asteburu osoan, lehiaketa garatzen den inguruan 45 standez osatutako Erdi Aroko Azoka izango da ikusgai. Horrez gainera, nobedade moduan, buggy erakustaldiak ere eskainiko dituzte. ■ J.D.

Buggy erakustaldiak antolatu dituzte lehenengoz



# AMALURRA<sup>></sup>



Mancomunidad de la Merindad  
de Durango  
Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa



## Arnasten dugun airearen kalitatea gertutik ezagutzeko aukera

**“Orain ez dugu emaitza hain txarrik. Industria arloan asko egin da; mugikortasunean, berriz, asko dago egiteko”**

**Asteon neurgailua ipini dute Zumalakarregi kalean eta egunero gai kutsagarrien informazioa jasoko dute**

**Durangoko Udalak eta Azterlanek airearen kalitateaz eta mugikortasun iraunkorraz sentsibilizatuko dituzte herritarrak**

Aste Berdearen barruan, Durangoko Udalak kanpaina egingo du, Ezkurdi plazan, airearen kalitateaz eta mugikortasun iraunkorraz herritarrak sentsibilizatu eta informatzeko.

Durangoko Airearen Kalitatea Hobetzeko Proiektuaren barruan sinatutako hitzarmenaren bitartez, Durangoko Udalak eta Azterlan ikerketa-zentroak elkarlanean prestatu dute ekintza. Kaletik bertatik ekingo diote airearen kalitatea kontrolatzeari. Hortaz, asteon neurgailua ipini dute kalean bertan, eta egunero oinezkoek kalean arnasten duten gai kutsagarrien kontzentrazioari buruzko datuak jasoko dituzte. Azterketa beharretan aritu diren teknikariek azaldu dutenez, ekitaldi honekin herritarrei jakinarazi gura diote urte bian airearen kalitatea azterzen

aritu direla. Hala, azterketatik jasotako emaitzen berri emango diete herritarrei, hainbat posterrren bidez. Informazio kanpaina Zumalakarregi kalean egingo dute, Ezkurdi plazaren ondoan, gaur 17:00etatik 20:00etara; eta zapatuan, 11:00etatik 14:00etara.

Gainera, gura duen edonork norbere kotxearen isuriak doan neurtzeko aukera egongo da bariku arratsaldean eta zapatu goizean. Renault Gaurisa etxea arduratuko da autoen diagnostik egiteaz. Izan ere, Azterlaneko teknikariek diote, airearen kalitate txarra industriari egotzen zaiola, “baina guk egunero kotxea hartzen dugunean ere kutsadura sortzen dugu. Airearen kalitatearen emaitza partikula guztien nahasketa da, batuketa bat da”, hain zuzen ere.

### **Airea aztergai**

Airearen kalitatea kontrolatzeko, urte bian egunero hartu dituzte material partikulatuaren laginak. Datuen arabera, une honetan, airearen kalitatean “ez dugu emaitza hain txarrik. Industria arloan asko egin da; mugikortasunean, berriz, asko dago egiteko”.

Azterketarako aire-neurgailua beste udalerriekiko mugan ipini zuten; beraz, “Durangon sortzen den kutsadura eta beste herrietatik, Elorrio, Mañari edo Zornotzatik, zer sartzen den ikusteko aukera izan dugu”. Izan ere, “aireak ez dauka muga administratiborik” eta inguruko herrietako aire-kalitatea aztertzeko beharra ikusi dute Azterlanen. Beraz, “bigarren ikerketa, mankomunitatean egin dugu. Zortzi hilabetea aritu gara”.



# Gremioen gida



**Iturgintza**

**Klimatizazioa**  
**Kalefazioa**  
**Iturgintza**  
**Gasa**

**Arriandi ITURGINTZA**

Arriandi, 16 - behea, 3. atea  
Sakelekoa: 607 24 58 54  
Faxa: 94 681 61 58  
Iurreta

Baimendun  
Instalatuzailea

**Elektronika**

**URBASA Elektronikak**

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA  
